



BARREN
TOKIKOM



Bisitak etxera mugatuta

ROSA M^a PINTADO
Etxaldeen administratzailea
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184
rosapf@telefonica.net



Aholkularitza
kolaboratzailea



ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeen kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

Gardentasuna



Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Notaritza eta erregistroetako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA

administradores

Consejo Vasco de Colegios
de Administradores de Fincas

Euskadiko Finka Administrazioen
Lurralde Kontseilua

DERRIGORREKO
KOLEGIATZEA

BAI!
MILA ESKER

Egin dugu. Segi dezagun egiten.

Egin dugu.

EUSKARALDIA amaitu da, baina gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan orain egin behar dugu; hemendik aurrera. Txapak eta arigune-ikurrak kendu ditugunean. EUSKARALDIaren argiak itzali direnean.

EUSKARALDIA euskaraz gehiago egiteko ariketa soziala da, baina pentsatzeko aukera ere eman digu. Gogoeta egiteko. Egiten dugunaren gainean hausnartzeko.

Norekin egiten dugu? Non? Zergatik? Eta, zergatik ez?

15 egun izan ditugu euskaraz dakienarekin, euskaraz ulertzen duenarekin, euskaraz egiten ote dugun ikusi eta pentsatzeko. Horretaz jabetzea da kontua.

Baina kontua, batez ere, ekitea da; gehiago egiten saiatzea.

Kontua ez baita bakarrik hizkuntza maitatzea, euskara aldarrikatzea, edota euskararen alde egotea. Hori ondo dago, baina ez da nahikoa.

Erabiltzen ez dugun hizkuntza ez dugulako ezertarako.

Egitea da kontua. Gehiago egitea.

EUSKARALDIAk aukera eskaini digu egin daitekeela ikusteko, beti erraza ez bada ere. Euskara gehiago erabiltzea geure esku ere badagoela ohartzeko balio du EUSKARALDIAk. Eta gure esku diogunean, ahalduntzeaz ari gara:

Geure ahalduntzeaz, norbanakoenaz.

Baina baita erakunde, elkarte, enpresa eta administrazioen ahalduntzeaz ere.

Denok ere pauso bat aurrera eman beharraz ari gara. Denon ardura baita hau. Norbanakoena eta erakundeena.

EUSKARALDIAk gehiago egiteko aukera EMAN digu, baina ESKATU ere egin digu. Ahalegina eskatu digu, konpromisoa. Eta konpromiso eta ahalegin horri hemendik aurrera ere eusteko eskatuko digu.

Amaitu da EUSKARALDIaren bigarren edizioa. Hirugarrena ere etorriko da, seguruenez, gehiago egiteko lelo berriren batekin, baina ez gara haren zain egongo.

Egin dugu. Segi dezagun egiten.





JUAN LUIS MUGERTZA






Idazlea

English gutxi

izango direnak. Gure gazte denboran Franco bizirik zegoen, eskolan hizkuntzak (ez Hizkuntza Eskolarik, ez bestelakorik) ikasteko aukera oso txikia zegoen; *nothing* esango nuke nik, eta orduko gustuko musika taldeen abestiak (*Eagles*, '*Hotel California*', *Neil Young*, '*Heart Of Gol*'...) ondo ahoskatzeko, eta *vocabulary*a erabiltzeko, Erresuma Batua gaur egun baino urutiago zegoen. Halarik ere, ikusi eta gero anglosaxoien hizkuntzak zer nolako indarra duen, eta hartuko duen txertoen borrokan (espero dezagun izenak txineraz ikasi behar ez izatea), gero eta errazagoa da nagusien arteko elkarriketetan (txikiteoan, gehienetan), anglizismoak (*Netflix*, *COVID-19*, *selfi*, *take away*...) entzutea. Izan ere, horrelako testu inguruetan, eta

Etxepareren lema ahotan *Jalgi hadi kanpora*, baina *Shakespeare-enera* moldatuta, beti dago norbait ingeles hizkuntzaren inguruan gogoeta egiteko parada hartzen duena: "*Ingelesa ez dek oso zaila*". "*Eta hik nola dakik, ba?*". Eta orduan, Irlandara hegazkinean joan nintzeneko pasadizoa etortzen zait gogora. Neure kabuz ikasitako apurra praktikan ipintzeko, sekulako aukera ikusi nuen gero eta gertuago zegoen azafatarekin lardaskatzeko-edo, eta '*one beer, please!*' elegante ahoskatzeko. Ez dakit, bada, tarte batean konexioa ez ote nuen galduko, baina azafatak '*Sorry!*' gozogo esan, eta alderik alde margotutako ezpainen gorria gero eta gorriago ikusi nuen neure aurpegiaren masailetan. Harez geroztik, beti eskatzen dut *water*. Dirudienez, hobeto ulertzen didate.

"'Sorry' gozo-gozo esan eta alderik alde margotutako ezpainen gorria gero eta gorriago ikusi nuen neure aurpegiaren masailetan"

| | | |
|--|---|--|
|  <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Euskarazko Topagunea</p> | <p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112</p> <p>Publizitatea: 943 743 704 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zaloa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIA Amaia Arrizabalaga KOLABORATZAILEAK Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p> | <p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR URDIA AYUNTAMIENTO</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>  <p>MENDIARRO 1981</p>  <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p> |
|--|---|--|

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ OHARRA

Eskuartearen duzuna da 2020ko azken alea. Eguberrietako oporren ostean, urtarrilaren 4an itzuliko gara lanera, eta hilaren 8an jasoko duzue hurrengo zenbakia. Zorionak eta urte berri on!

BARREN astekaria

▶ ESKERRIK ASKO

Elgoibarko Ikastolakoek azoka solidarioa egin dute, eta aurten, guri ematea erabaki dute han batutako dirua. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu, bihotz-bihotzez.

Nuala Elkartea

▶ PAISAIA ALDAKETA

Pandemia garai hauetan bati baino gehiagori aditu diot Elgoibarko txoko berriak ezagutzen ari dela. Herri inguruan ibilaldi bat egitea nahikoa da gure mendietan gertatzen ari den pasaia aldatzeko. Pinua bota dute, mendia biluztu eta, orain, errenkada luzetan espezie berriak landatu dituzte.

Zer dakigu espezie aldaketa masibo honek suposatzen duenaz? Lurzoruan, basoan eta zuhaitzetan bizi ohi diren animaliekin zer gertatzen ari da? Jakina da lur gainean erreketara irrist egiten duen ur kopuruak, lur azpira infiltratzen denak edota ebaporatzen denak landaretzarekin zerikusia duela. Zer eragin izango du erreketan edo kliman zuhaitz aldaketa honek? Perretxiko zaleek ere zer bait somatuko al dute? Eta orain hain modan dagoen "biodibertsitatearen" ikuspegitik, zer suposatzen du?

Lursailen jabeek beraien lurretan landutako dutenaren inguruan erabakitzeak eskubidea dutela esan dezakete. Baina industria aktibitateek ingurumenean sortutako eraginaren azterketa egin behar duten bezala, administrazioak basoen kudeaketa arautu beharko lukeela irudi-

tzen zait. Seguraski baso eredia da goitik behera aldatu beharko genukeena, baina, bitartean, inguruko bailaretan sartzen ari garen espezie berrien eragina kontuan hartzeko eskatuko nioke dagoen administrazioari. Gure mendietako lurzoru, animalia, landare, erreka, klima eta pertsonen ongizatea babesteko, mesedez. Hori ere aberastasuna baita.

Hurrengo pasiaran irriten garenean, kontuan izan: gure mendietan gertatzen ari dena paisaia aldaketa baino gehiago da, basoak egur biltegia baino gehiago baitira.

A.G.

▶ AURTEN, ELGOIBARREN!

Aurten ez da posible izango milaka eta milaka lagun biltzea Bilbon, azken urteetan egin dugun moduan. Pandemia egoerak ezinezkoa egiten du urteroko mobilizazio erraldoi hau era osasuntsu eta seguruan egitea. Horregatik, aurten, urtarrilaren 9an Hego Euskal Herriko herri eta auzoetan bilduko gara preso politikoen eskubideak babestearen alde gaudenok, presoak etxeratzea elkarbizitzarako eta bakerako bideak direla sinetsita gauden guztiok. Ipar Euskal Herrian giza-kate argitsua egingo dute Baionan, ordu berrean.

Elgoibarren ere deialdi zabala egin nahi dugu urtarril hasieran egiten den mobilizazio honetan autobusez, autoz edo trennez Bilbora joan diren horiek Kalegoen plazan egon daitezen arratsaldeko 17:30ean, bertan egingo den ekitaldian parte hartuz. Elkarbizitzarako, bakerako eta etxeratzeko bidean parte hartzeko gonbitea da hau, bide honetan parte har dezagun; har dezazun. Euskal Herriko gehiengo politikoa eta sindikala bide horretan dago, larunbatean ikusi bezala. Bide honetan, Espainiako Gobernuak orain arte hartu

dituen erabakiak azkar daitezzen eskatzea tokatzen zaigu orain, berandu baino lehen. Izan bidea, bidea izan gaitezen.

Sare Elgoibar

▶ HAUR PARKEEN HARIRA

Zeintzuk dira haur parkeak diseinatzeko Elgoibarko Udalak erabiltzen dituen irizpideak? Aurreko asteburuan gure 3 urteko alaba Maalako parkeko egitura batetatik erori zen, bi metro inguruko altueratik eta behekaldeko burniaren kontra jo zuen buruarekin. Izan ere, burni asko daude behekaldean. Orain arte ez zaigu horrelakorik gertatu, baina beti iruditu zait oso erraza dela gertatzea. Ume txiki asko gai dira egitura horietara igotzeko. Gurea, esaterako, urtebete zeukanetik igotzen da, eta gehienetan ez da ezer gertatzen, baina despiste txiki bat nahikoa da erortzeko, eta gertatuz gero, altuera handiegitik jausi daitezke. Gu beti ibiltzen gara estresatuta egitura horietan alde batera eta bestera, bada ez bada, baina aurrekoan eskuetatik irrist egin zigun umeak eta danba! Kolpe ederra hartu zuen.

Plaza txikiaren diseinua ere ez zait ulergarria iruditzen. Haur parkea adin oso ezberdinetako umez betetzen da. Batzuk besteen gainean ibiltzen dira, txikiaren txokoa, soken egitura eta baita hormigoizko olatuetan ere. Elgoibar umez beteta dago eta iruditzen zait ez direla kontutan hartzen, batez ere, txikiak. Plaza Txikiko aparkalekua libratu egin beharko litzateke umeek lasai jolasteko, kotxe artean ibili gabe eta Lekueder ere beste modu batean atondu beharko litzateke, umeen ikuspegitik diseinatutako parke bat egiteko.

M. A.

PSE-EEk salatu du hobari fiskalak ezingo direla aplikatu 2021ean Mendaron, "plangintza txarragatik"

Udal tasa eta zerga guztiak izoztea onartu zuen Mendaroko udalbatzak azkeneko osoko bilkuran, bai eta familia ugariarentzat hobari berriak sortzea ere Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gainekoan. Era berean, duela 30 urte hutsik zeuden etxebizitzetako OHZn % 50eko erre-kargua ezartzea onartu zuen Udalbatzak (EH Bilduko zinegotziek eta PSE-EEkoaren botoekin. EAjk kontra bozkatu zuen). Hala ere, Mari Jose Telleria PSE-EEko zinegotziak ohartarazi du onartutako guzti hori ezingo dela indarrean jarri 2022an, udal-ordenantza berriak onartzeko Osoko Bilkura azaroaren 26an egin zelako, egindako aldaketak hurrengo urtetik aurrera aplikatu ahal izatea ahalbidetuko luketen izapide guztiak betetzeko behar den denbora gabe.

Telleriak esan du gertatu zitekeenaz ohartarazi ziola Iñaki Arregi alkateari, baina hala ere, azaroaren 26ko ohiko osoko bilkurarako utzi zuela alkateak ordenantza fiskalen behin-behineko onarpena. "Eta abenduaren 3an oraindik ez dira ordenantzak aldizkarian argitaratu. Beraz, ezinezkoa da jendeurrean 30 egunez egotea", zehaztu zuen horren harira Telleriak prentsa oharrean. Ohar berean Telleriak dio bi neurri horien helburua Mendaro familientzako udalerrirak erakargarriagoa bihurtzea dela, zama fiskalak arinduz eta bizi ez diren etxebizitzak alokairuan jartzea sustatuz, gazteei independintzatzeko aukera emanez. Mendaron duen erronka demografikoaz ere ohartarazten du Telleriak oharrean eta dio jaiotza-tasa apalako mantentzeko arriskuak "ondorio larriak" izango dituela bizitza sozialean eta ekonomikoan. "2020an bederatzi haur jaiotzeak dira Mendaron; eta azken hamabi hilabeteetan, 2019ko azarotik 2020ko azarora bitartean, hamar guztira". Zinegotzi sozialistaren arabera, EAjren gobernuak "plangintza txarra" du eta "ez du inolako presarik" neurriak martxan jartzeko. Gehiago ere badiot: "Atzerapen hori nahita eragindakoa izan ote den galdetu diot neure buruari, neurri berriak martxan jarri ezin izateko jeltzaleek erabili duten trikimailu bat alegia. Izan ere, EAj etxebizitzaren errekararen aurka agertu da uneoro". Horren harira ohartarazpen bat egin die jeltzaleei: Mendaroko osoko bilkurak gehiengoz eta demokratikoki erabaki duena gauzatu ez dadin trikimailu bila hasi gabe, hobe lukete errekarua saihesteko iruzurrezko erroldatze aldaketan aurrean adi egon".

Joseba Irazokiren kontzertua Mendaron, abenduaren 27an

Joseba Irazokik kontzertua emango du Mendaron, bakarka, abenduaren 27an (domeka). San Agustin kulturgunean izango da kontzertua, 19:00etan hasita, eta sarre-rak Puxika gozoki dendan eta Uztargin jarriko dituzte salgai, 2 euroan. Gararock jaialdiaren antolatzaileek antolatu dute kontzertu hau, Udalaren babesarekin eta iragarri dute gehiago etor daitezkeela.

Urtarrilaren 16an hasiko da Kirol Patronatua abonua kobratzen

Elgoibarko Udala Kirol Patronatua jakinarazi du urtarrilaren 16an hasiko direla kobratzen 2021 urteko abonua. Bajar ematea nahi dutenek abenduaren 15etik urtarrilaren 15era bitartean jakinarazi behar dute olaizagaharrera@hotmail.es helbidean, era horretara 2020ko abonuari dagokion itzulketa jaso ahal izan dezaten. 2021ean abonarekin jarraitzea nahi dutenei, dagokion 2020ko abonuen murrizketa aplikatuko zaie 2021eko prezioan. Hauek ez daukate abonua berri-tzea nahi dutela jakinarazi beharrik. Bajar ematen ez dutenei abonua berrituko diete.

Mezu positiboak zabalteko ekimena gauzatu dute 'Aldenk Alden' egitasmoko gazteek

Atxutxiamaiak aisialdi taldeko Aldenk Alden egitasmoko gaztetxoek koronabirusak baldintzatutako Eguberriek begira mezu positiboak zabalteko ekimena gauzatu dute, *Zoriondu Eguberriak* izenburupean. Bate-tik, ikastetxe bakoitzeko taldeek beraien indar eta animo guztiak transmitu nahi izan zizkieten herritarrei, mural baten bitartez. Bestetik, familiei aukera eman zieten sormena eta irudimena landuz opariak sortzeko, mezu positiboetan oinarrituta. Parte hartu dutenen artean Pitxintxu dendako opari sorta bat zozketatu zuten arduradunek, eta Ulibarri-Telle-txea familiak irabazi du, *Bizitza opari bat da mezuagatik*.



Elgoibarrek 675 urte beteko ditu datorren urtean, eta urteurren hori ospatzeko egitaraua aurkeztu du Udalak

Elgoibarrek 675 urte beteko ditu 2021eko abenduaren 20an, eta urteurren hori ospatzeko egitaraua aurkeztu du Elgoibarko Udalak. Sail desberdinen bitartez eta herriko erakunde, kolektibo, talde eta boluntarioen laguntzarekin, ekintzaz beteriko egitaraua prestatu dute, besteak beste, erakusketa omenaldia, erakusketa filatelikoak, liburuen publikazioak, bisita gidatuak edo Udal Musika Bandaren kontzertua. Programa Elgoibar ofizialki sortu zen egunean bukatuko da, abenduaren 20an, alegia. Ekitaldi horien inguruko xehetasunak azaldu zituzten eguaztenean prentsaurrean Ane Beitia Elgoibarko alkateak; Andrea Arriola Elgoibarko Udaleko Kultura Saileko zinegotziak; Blanca Salegi Kultura Saileko teknikariak; Pello Arrieta eta Javier Elorza historialariek; Jokin Marfinez Ongarri argazki taldeko Koordinatzaileak eta Jesus Mari Sarasua Ongarri taldeko kideak. Elgoibarko Udalak 20.000 euro inguru inbertitu ditu 2021ean zehar gauzatuko den programan. Logotipo lehiaketa ere antolatu du Udalak urteurrenerako, eta Castelloko Alfontso Gimenezek irabazi du. 13 lan aurkeztu dituzte guztira.



2023ra arte indarrean egongo den Berdintasun Plana onartu du Elgoibarko Udalak

Udalaren Osoko Bilkurak 2020-2023 epean indarrean egongo den IV. Berdintasun Plana onartu du, eta, dagoeneko, bukatu da alegazioak egiteko epea. Plan berriak lau ardatz nagusi izango ditu: berdintasunaren aldeko gobernu ona; emakumeen ahalgintzea; ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea eskubideak bermatzeko eta, azkenik, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak. Plana egiteko, bi fasetan antolatu dira: 2019ko irailetik abendura arte, III. planaren ebaluazioa eta diagnostikoa egin zuten, eta 2020ko urtariletik ekainera plana diseinatu zuten. Lortutako emaitzarekin "oso pozik" geratu direla adierazi du Maialen Gurrutxaga Berdintasun zinegotziak.

'ElgoibarKlik' plataforma martxan da, herrian erosketak on-line egiteko



Elgoibarko Udalak eta Txankakua merkatarien elkarteak bat egiten dute *ElgoibarKlik* egitasmoan. Elgoibarko ostalaritza, merkataritza eta zerbitzu-sektoreko negozioei ikusgarritasuna emango dien on-line salmentarako plataforma da, eta dagoeneko martxan dago. 77 establezimenduk eman dute izena, eta horietatik 11k on-line salduko dute, hogeik whatsapp bidez eta 21ek eramateko zerbitzua eskainiko dute. Plataforma sektoreka antolatuta dago (merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresak), eta horien guztien informazio zehatza eskaintzen du. Oraindik izena eman ez duten establezimeduek abenduaren 30era arteko epea daukate.

Herriko Antzokiaren aurreko parkea San Lazaroko egoiliarrentzat erreserbatu dute

Koronabirusaren eraginez zaharren egoitzetako egoiliarrek bisitak mugatuta eta kalera irten ezinda egon dira luzaroan, eta arazo horri irtenbidea eman nahi izan dio Elgoibarko Udalak. Horretarako, San Lazaro egoitzaren aurrealdean dagoen jubilatuen parkea egoitzako egoiliarrentzat erreserbatu dute. Covid-19a dela-eta, gunea hesitu dute, egoiliarrek gainerako herritarrekin kontakturik izan ez dezaten, eta seguru egon daitezten parkean.



'Bateragune auziko' epaiketa berriro egitea erabaki du Espainiako Auzitegi Gorenak



Arnaldo Otegi, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez, Miren Zabaleta, eta Rafa Diez berriz epaituko dituzte Espainiako Auzitegi Nazionalan, 2011n zigortu zituzten auzi beragatik [Guztira 31 urteko zigorra ezarri zieten eta osorik bete zuten]. Hala erabaki zuten astelehenean Espainiako Auzitegi Gorenako bigarren aretoko hamasei epaileek, aho batez. Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko zazpigarren protokolo 4.2 artikulua oinarri hartuta erabaki zuten epaiketa errepikatzea, eta Gorenetik aipatu zuten epaiketa berriro egiteko salbuesten dituela artikulua horrek *Bateragune auzia* bezalako kasuetan. Erabakiak jurisprudentzia ezarri dezake Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren sententziak Espainian betetzeko moduan.

Batzuen kontraesanak eta besteen erantzuna

Lehen aldia da Giza Eskubideen Europako Auzitegiak baliogabetutako epaiketa bat errepikatzen dela, 2015ean epaiak aplikatzeko modua arautu zenetik. Kuriosoa da, gainera, Gorenak berak itxi zuelako uztailean auzia, Estrasburgoren epaia jaso ondorenean. Estrasburgok ebatzi zuen Otegi eta beste lau lagunei ez zirela bidezko epaiketarik egin. Epailetako bat, Angela Murillo, ez zela inpartziala izan arrazoitu zuen, eta ondorioz Giza Eskubideen Europako Hitzarmena urratu zela. Irailean, baina, Auzitegi Gorenako presidente Manuel Marchenak auzia berrikusteko eskatu zuen, eta iritzia emateko eskatu zien aldeei, beste epaiketa bat egiteko bidea zabalduz. Eta orduan, lehen ez bezala, epaiketa errepikatzearen alde agertu zen fiskala. Izan ere, aurrez, Estrasburgoren 2018ko sententzia Espainian betearazteko egindako berrikuspen helegitea tramitaterakoan, ez zuen auzia berriro egiteko eskatu. Orduan, zigorrak bertan behera uzteko eskatu zuen bakarrik.

Kontraesanak asko dira. Auzitegi Nagusiarekin ere ez dator bat erabaki hau. Izan ere, urrian, Auzitegi Nazionalak ez zuen onartu epaiketa berriro egitea, AVT-Verde Esperanza biktimen elkarteak hala eskatu bazion ere. Auzitegi Nazionalak argudiatu zuen epaiketa berriro egiteak ez lukeela lege babesik izango. Izan ere, Espainiako Prozedurara Kriminaleko Legeak ez du halakorik aurreikusten eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak dio pertsona interesdunek eskatuta bakarrik egin daitekeela epaiketa berriro, eta auzipetu eta zigortuek ez dute halakorik eskatu.

Ebazpenari erantzuteko agerraldia egin zuen EHBilduk martitzenean eta esan zuen argi gelditu dela "auzi politikoa" dela hau. "Hauteskundeak galtzen dituenean, Espainiako eskuina errefuxiatzen da botere faktikoetan; militarretan, komunikabideetan eta judikaturan. Badago bloke politiko bat, militar bat eta togadun bat. Horiek guztiak dira 78ko erregimena, inpugnatzen duguna.

Gabonetako postala sortu du Urazandiko auzo elkarteak

"Jai zoriontsuak, osasuna eta irisgarritasun berria opa dizuegu", dioten Gabonetako postala sortu dute Urazandiko Auzo Elkarteok. Urazandirako beharrezkoak ikusten dituzten proiektuak kontuan har ditzatela eskatu dute, besteak beste Urazandirako zubi berria, postalean bertan sartu dutena. Horren harira nabarmendu dute Urazandiko zubi berriak herritar guztiei egingo likeela on, eta ez urazanditarrei bakarrik. "Gabonetako postal honenkin Olentzerori eta Errege Magoei umiltasunez eskatu nahi diegu zubiak behar dituen hobekuntzak ahal bezain laster egin ditzatela. 2021ean badatoz, askoz hobeto. Kontua da gutaz ahaz ez daitezela". Argi utzi dute irudimenarekin eginiko postala dela eta oraindik ez dagoela proiektua onartuta.



Txankakuaren esker ona bezero eta herritarrei

Urtero Gabonetan egin ohi duten kanpaina aurkeztu zuen Txankakua Merkatarien Elkarteak abenduko jai-zubiaren aurrean, betiko baloreak azpimarratuz: hurbiltasuna, konfiantza eta adiskidetasuna. Udalaren eta Jauriaritzaren babesarekin antolatu dute kanpaina eta kanpaina horren barruan kaleak eta dendak apaindu dituzte, bideo bat ere zabaldu dute eta zozketa baten berri ere eman dute. "Urte hau urte zaila izaten ari da, eta oraindik asko dugu gainditzeko. Hala ere, merkatariek herritarrei esan nahi diegu garrantziatsuak sentiarazi gaituztela. Bi hitz esateko beharra sentitu dugu: eskerrik asko".

14.504.491 euroko aurrekontua onartu du Debabarreneko Mankomunitateak

Datorren urterako aurrekontua onartu berri du Debabarreneko Mankomunitateak: 14.504.491 eurokoa, iazkoa baino 8.253 euro (%0,057) handiagoa. Diru sail handiena hiri-hondakinen gaikako bilketara eta kudeaketara bideratuko dute: 9.128.366 eurokoa, aurrekontuaren %60 baino gehiago. Atal horretan, honako partida hauek indartu dituzte: hondakinen tratamendua, altzarien eta egurren bilketa, paper, kartoï eta ontzien bilketa, COVID-19ari lotutako gastuak... Inbertsioetan, berriz, honako hauek nabarmendu dituzte: atzeko karga duen kamioia, Kutxa baskulatailedun kamioia eta altzariak jasotzeko plataforma jasotzailedun kamioia. Bigarren diru-sail handiena kale-garbitzetaren atalak eramango du, 4.074.845 euro inguru hartuko dituelako. Atal horretan gaur egungo zerbitzua mantenduko dute. Josu Arraiz Mankomunitateko lehendakariak adierazi du bilketan, birziklatzean eta kale garbitzean, Mankomunitateak 180,72 euro inbertituko dituela 2021ean herritar bakoitzeko, 2020an baino 0,13 gehiago.

Urrian Elgoibarren ostalaritza bonoak eskuratu zituztenek urtarrilaren 5era arte trukatu ahal izango dituzte

Urrian salmentan jarri zituen ostalaritza bultzatzeko 'On egin' bonoak trukatzeko epea urtarrilaren 5era arte luzatuko du Elgoibarko Udalak. Kanpaina abian jarri zutenean abenduaren 1era arteko epea eman zuten bonoak trukatzeko, baina justu, tabernak ixteko agindu zuen Jaurilaritzak, eta horrenbestez, atzeratu egin behar izan zuten epea. Abenduaren 12an zabaldu zituzten tabernak 100.000 biztanleko 500 kasu baino gutxiago dauden herrietan, tartean Elgoibarren.

Eguberrietako kanta eta bideoklipa sortu dituzte Elgoibarren Atxutxiamaikak, Ludotekak eta musika eskolak



Gabon kantu berria eta bideoklipa ere sortu dute Elgoibarren Atxutxiamaiak, Ludotekak eta Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak. Asteazkenean egin zuten publiko bideoklipa eta orain, kantu horrekin egiten dituzten grabazioak bidaltzeko eskatu diete herritarrei, jasotako guztiarekin beste bideoklip bat sortzeko. Kantuan, dantzan, instrumenturen bat jotzen... denak balio du. Materiala egunberriak@ni.eus helbidera bidali behar dira.

Mekako bi ikasle Espainiako Rally Virtualen txapelketan

Mekan 2EM2-ko Elektromekanika ikasten ari diren Ion eta Gorka del Cid anaiak aurreaurrean daude Espainiako Rally Virtualen Txapelketan. Ionek Ryo Cuznako Rallyesprinta irabazi zuen aurreko astean eta Gorkak zortzigarren postuan amaitu zuen La Llanako rallya. Ikastetxetik zorionak eman dizkiete bie.



Sarrerako ate berria du Altzolatarren Dorretxeak

Altzolatarren Dorretxea eraikineko (Kultur Etxe zaharra eta PuntuEUS fundazioaren bulegoak dauden eraikina) atea aldatu du Udalak, arazoak ematen zituelako orain arteko atea, duela 30 urte jarritakoak. Bate-tik, pisutsuegia zen, eta bestetik, ez zuen ondo ixten. Ulmar SL enpresak egin du ate berria, eta 3.532,45 euroko kostua izan du. Ate berria, arinagoa izateaz gainera, garai berrietara egokitutakoa da, eta sarraila elektronikoa du, txartel bidezkoa.



Olentzeroren zakua Elgoibarren!

Erosi herrian, bizirik jarrai dezan!

Gehigarri honetan aurkituko dituzun boletoekin deskontuak eskuratuko dituzu, **abenduan 18tik urtarrilaren 5era** arte. Erosketa bakoitzeko boleto bakarra erabili daiteke, eta ezin zaizkie bestelako deskontuei gehitu. **GABON ZORIONTSUAK!!!**

Pedro Migel Urruzuno kalea, 10
Leire
leopondegia peluqueria
Abenduan ile-apaindegira etortzen zareten guztion artean saski hau zozketatuko dugu.



943 256 105
Mila esker urte zail honetan gugan konfidantza jarri duzuen guztioi.

Auzoari nortasuna ematen diote

.....

Herriko dendek eta tabernek egunero bizitza animatzen dute, kaleei giroa eta nortasuna ematen diete eta jendez betetzen dituzte. Herria biziago egiten dute eta hobekuntza bultzatzen dute. Denda txiki askoko auzo batean paseatzea erakusleioak ikustea da, merkataria eta ostalariek antolatzen dituzten jarduera eta ekimenekin harriztea, etab. Egiten duten lana aitortu behar zaie, gure kaleen segurtasunari egiten dioten ekarpena, kaleak garbi, beteta eta argituta edukitzean. Saltokirik gabe, eraikinak degradatu egingo lirarteke, eta auzoak hutsik geratuko lirarteke.

Keritena
belar denda 1
San Bartolome, 7 943 744 031



Tiketa hau ekarriz gero, **%15**eko deskontua lortuko duzu **Corpore sano** etxeko ilea erortzearen aurkako xanpuetan eta xanpu hidratzaileetan. Baita armonia etxeko aloe verazko aurpegi-kreman.

*Mila esker beti hor izateagatik!
2021 urte oparoa guztioi!*

Arauri
LURRIMODEGIA ETA ESTETIKA ZENTRUA
San Bartolome, 6
943 741 700 / 600 742 452

ZOZKETA
- Aurpegi balaia mendua
- Manikura erdiiraunkorra
- Negurako eskularruak eta bufanda



Guk ere banatuko ditugu opariak!
Bete txarri! Hasi eta gure zozketan parte hartuko duzu!

Izen-abizenak: _____
Telefonoa: _____

San Bartolome, 26
943 740 848

azkue
ARGAZKIAK

EZ EMAN BUELTARIK, MR WONDERFUL BETI DA OPARI EGOKIA!



OLAIA MARTINEZ
ESTETIKA ZENTROA



Tiket hau ekarriz gero, abenduan zehar, manikura erdiiraunkorrean eta oparitzeko edertasun kaxetan **%10**eko deskontua lortuko duzu.

Trenbide kalea, 21, behea, ezkerria
943 242 805

Idama
Antonio Arillaga, 6-8 behea 943 744 026



Tiket hau aurkeztuta
%10eko deskontua izango duzu egiten duzun orrazkeran.



KARKIZANO



Abenduak 21 etik 26ra motxilak eta merendarako poltsak %10eko deskontua

Cristina Garcia
Errosario kalea, 19
943 742 950

 cristina.garcia.estetica

Aurten abenduaren 9tik 24ra bitartean erositako gure **OPARI-BONOAK** deskontua izango dute, animatu zaitezte edertasuna oparitzera!

Erritual-bonoak
Aurpegia tratatzeko bono pertsonalizatuak
Gorputza tratatzeko bonoak
Kosmetika kaxak

Mila esker bezero guztiei momentu zailenetan eskalari diguzuen konfidantzarengatik

LAGUNAK
solchaseria textil hogar

Mila esker zuen konfiantzagatik!

Sukalderako eta jangelarako mahai eta aulki aukera zabalak Etorri eta ikus itzazu.



San Roke kalea, 20 - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

Enplegua sortzen dute

Langile gehien kontratatzen dituzten enpresak dendak, jatetxeak, tabernak eta auzoko negozio txikiak dira, eta, aldi berean, horiek dira krisia gehien pairatzen dutenak, ezin baitute lehiatu saltoki handiekin baldintza berberetan. Horiek guztiak babestea gure esku dago.

HARATEGIA-URDATEGIA

ELKAL ORELA

ZIARDA

BASERRIKO KALITATERA



Gabon zoriontsuak!

ecenarro LENTZERIA

Mila esker aurten ere gure ondoan egoteagatik. Zuek gabe gure lanak ez du zentzurik.

Gabon zoriontsuak guztioi!



San Frantzisko, 10
943 742 619



ARAMBURU BITXIDENDA
San Frantzisko, 26
943 742 535

Erosi zure oparia Aramburu bitxidendan eta **250€ko bi baleren zozketan** parte hartuko duzu.

Maria Urizar
Ileapaindegia

San Bartolome 15, behea
943 744 489

35€

Gabon hauetan, oparitu ilerako tratamendua
Ilearen kalitatearen azterketa
+ Garbiketa
+ Tratamendu pertsonalizatua
+ Orrazkera



Nolakoak aurreikusten dituzu Gabonak?

Aurtengo Gabonak ez direla orain arte bezalakoak izango begi bistakoa da, eta horren erakusle dira orrietan jaso ditugun testigantzak. Koronabirusak nola eragin dien azaldu dute, bakoitzak beretik.

AINHOA ANDONEGI / AINARA ARGOITIA



Anton Zabaleta, eskuman.

ANTON ZABALETA, Elgojaitza taldeko lehendakaria

"Aurten ez dugu jaiotza mekanikorik jarriko. Egoerak ez du ahalbidetzen eta ezin dugu arriskurik hartu. 40 urtean hutsik egin gabe jarri dugu jaiotza martxan, baina koronabirusak hau ere eten digu. Gu urtero bezala hasi ginen lanean aurtengo jaiotza prestatzeko, baina udako oporren ostean argi ikusi genuen aurten ezingo genuela jaiotzarik ipini. Gure lokalaren ezaugarriekin ezin dugu bermatu herritarren osasuna. Lokalak sarrera bakarra dauka, eta nahiko gune estuan pilotzen da jende guztia jaiotza ikusteko. Jaiotzak, gainera, bisita asko izaten ditu, iaz ia 20.000 lagun etorri ziren, eta jaiotza zaintzen dauden pertsonak jende askorekin

harremanetan egon beharko lukete. Hasierako urteetan parrokian bertan jartzen genuen jaiotza, baina urteik urtera handituz zihoan gure lana, eta parrokian ez geneukan lekurik. Parrokia ondoko kapera bat utzi ziguten, eta han jartzen dugu orain. Lokal hori ere txiki geratzen hasi zaigu. 52 pieza ditugu mugimendudunak, eta aurten berri bat sartzeko asmoa geneukan, baina horretarako besteren bat kendu egin beharko genukeen. Datorren urterako gorde beharko dugu. Ea datorren urtean egoera hobea daukagun".

JULIAN RODRIGUEZ, Gurutze Gorrikoa

"Urte osoko dinamikari eutsiko diogu Gabonetan ere, baina inoiz baino lan handiagoa izango dugu aurten. Izan ere, koronabirusaren pandemiak argitara atera du lehen ezkutuan zegoena, eta askoz jende gehiagok eskatzen ditu orain dute zerbitzuak. Lehen ere bagenekien familia asko bizi zirela egoera oso zailean, baina ezkutuko ekonomia guztia derrigorrean geratu denean, familia askoren egoera prekariora azaleratu da. Guk martxan ditugu urteroko kanpainak, baina aurten %35 inguru egin du gora kanpaina horietan parte hartzen duten familien kopuruak. Jostailu hezitzaileen kanpaina daukagu batetik, eta horren helburua da hainbeste sufritu duten umeei jostailuren bat banatzea. Lehen erabilitako jostailuak jasotzen genituen, baina horrek ez zigun segurtasunik ematen. Jostailuak arazoren bat emango balu, nor da arduraduna? Batzuk gainera garbigunea ginela uste zuten eta ezertarako balio ez zuten jostailuak ematen zizkiguten. Era berean, jostailuak Elgoibarren jaso eta Elgoibarren banatzea ez zen oso egokia opariak jasotzen zituztenentzako, izan ere, jostailuaren jabeak askotan ezagutu egiten zituelako aurrez bereak izandakoak. Arrazoi horiek guztiak kontuan hartuta, azken urteetan jostailu berriak bakarrik jasotzen ditugu. Jostailuen kanpainarekin batera, elikadura banaketa kanpaina ere badaukagu, eta baita "aukerak suspertzen" kanpaina. Umeei etxeko lanetan laguntzeko kanpaina da hau, eskolan zailtasunak dituzten umeentzako. Gure helburua argia da Eguberrietarako: behar handiena duenari egun hauek eramangarriago egitea. Lan handiko egunak izaten dira guretzat, eta aurten are eta lan handiagoa izango



dugu. Eta datorren urtea uste dut bide beretik etorriko dela. Ikusi egin beharko da ekonomiaren bilakaera, baina hasiera gogorra izango da. Ostalaritza zabalik mantentzen bada, komertzioak, enpresak... lana hasiko da suspertzen eta guztion egoera hobetuko da. Bitartean, guk jarraituko dugu beharrik handiena dutenen gabeziak asetzen. Esango nuke Elgoibarren ondo ari garela lanean. Udaleko Ongizate Sailarekin elkarlanean ari gara, eta lan garrantzitsua egiten dihardugu”.



AMAIA ARRIZABALAGA, Ziarda harategikoa

“Aurtengo Gabonak ez dira orain artekoak bezalakoak izango. Enkarguak jasotzen ari gara, bai, baina ez beste urteetan bezala. Aurten enkargu txikiagoak egiten ari da jendea. Askok esan digute aurten etxeok bakarrik elkartuko direla, edo gurasoak seme batekin bakarrik... Uste dut hamar laguneko muga hori errespetatuko dutela gehienek. Elgoibarko familia asko elkarte gastronomikoetan biltzen dira Gabonetan etxean biltzeko senide asko direlako, baina aurten elkarteak itxita daude, eta familia handi horiek ez dira elkartuko. Ondorioz, ez gara ari enkargu handirik jasotzen. Dena da desberdina aurten. Gu janari denda izaterakoan nahiko ondo gaude beste batzuen aldean. Itxita egon direnak askoz egoera larriagoan daude, beraz, ezin

gara kexatu. Urtea nahiko ondo joan da azkenean, baina Gabonak lan handiko egunak izan ohi dira guretzat, eta aurten ez dira izango. Olentzeroren kalejirarik ere ez da egongo, eta askoz jende gutxiago ibiliko da kalean. Gu konturatu gara koronabirusak herritarren ohiturak aldatu egin dituela, eta 19:00etatik aurrera ez dela inor ibiltzen dendetan. Orain tabernak zabaldu dituztenez agian hasiko da kaleetan mugimendua igartzen, baina azaroko arratsaldeetan inor ez zen ikusten kalean. Dendari guztiok igarri dugu hori. Gabonetan ere kale ekintzarik ez denez egongo, jende gehiena erosketak egin eta zuzenean etxera joango da”.

MIKEL ARANTZAMENDI, udaltzainburua

“Guri kezka gehien abenduaren 24ko eta abenduaren 31ko iluntzeak sortzen digu. Egun horietan jende asko ibiltzen da tabernetan, eta aurtengoa ez dakigu nolakoa izango den, baina guk hori zaindu beharra daukagu. Jendeari ez zaio gustatzen arauak betearaztea, baina jakin behar dute koronabirusa ez dugula guk sortu eta arauak betetzeko esaten badiegu ez dela beraien amorrarazteko, baizik eta denon artean birus honi aurre egiteko. Oro har, herritarrak zintzo ari dira, baina guk uste genuena baino jende gehiago ibiltzen da tranpak egiten. Askok gu ikustean jantzen dute maskara, eta aldentzen garenean, berriz kendu egiten dute. Ez dira konturatzen gu ez gaituztela engainatzen, eta ezta birusa ere. Euren burua bakarrik engainatzen dute jarrera horrekin. Ikusi dugu jende asko ez dagoela egoerarekin kontzientziatuta. Uste dute beraien ez direla gaixotuko, baina kasu honetan norbera kutsatzeko arriskuagatik baino gehiago, besteak zaintzeko jantzi behar da maskara. Gabonetan ere orain arteko dinamikarekin jarraitzea da gure asmoa. Txanda tokatzen zaien udaltzainek hemen pasatuko dituzte Gabonak, eta zaindu beharko dute kalean talde handitan jendea ez biltzea eta etxeratze agindua betetzea, baina hortik aurrera, etxeetan gertatzen dena zaintzeko zaila daukagu. Ezin gara hasi etxetik joaten hamar senide baino gehiago dauden edo ez zaintzeko. Beraz, hori norberaren kontzientziaren araberakoa izango da. Ni neu, esaterako, ez naiz joango amaren etxera, batetik hamar lagun baino gehiago izango ginatekeelako, eta gainera, ez dudalako ama arriskuan jarri nahi. Pentsatzen dut gainerako jendeak ere buruarekin pentsatuta jokatuko duela egun hauetan, edo hori nahi nuke nik behintzat”.





GOTZON ZULAIKA, Alemanian bizi den mendaroarra

“Gabonetarako Euskal Herrira itzuli nahi nuke. Urte guztia hara-hona ibili ostean, etxe bueltan egoteko gogoz noa ni horra, eta ez daukat jende artean ibiltzeko asmo handirik, egia esan. Iru-ditzen zait luzerako izango dugula birus hau gure artean eta zaintzea dagokigula. Besteetan, etxeokoin baserrian egin izan dugun otordurik ez dugula izango badakit eta zentzuzkoa iruditzen zait. Orain, Hamburgon harrapautu nauzu, baina batetik bestera ibiltzen naiz, enpresaz enpresa, hotelez hotel. Oinarrizko ez den dena itxita dago hemen, eta gu bezala dabilenarentzat erabat deseroso gertatzen da hori. Eguneko otordu nagusiak lotzeko zailtasun handiak ditugu, hoteletako sukaldeak eta jangelak ere itxita daudelako. Eskerrak hemen, horko aldean, etxez etxe zerbitzua eskaintzen duten lokal gehiago dauden eta aplikazio batzuk ere badauden haiek topatzeko. Baina ez da erraza. Egun guztia lanean eman ostean jateko bila hasi behar zara ezagutzen ez duzun herri batean. Jatekoa ere janari azkarra izaten da beti, eta azkenerako higuindu ere egiten zara jateko bera jaten, hoteleko gelan. Eta asteburutan ere, gauza bera. Leku publikoetan eta barruetan sartzeko maskara jantztea derrigorra da, eta kalean ere, guneak daude. Jende asko dabilen lekuetan jantzi beharra dago eta jantztea derrigorra den leku horietan kontsumitzerik ere ez dago. Oso kontrolatuta gaude. Lehenengo egunetik bertatik, izen-abizenak eta helbidea hartu

izan dizkigute bezerooi tabernan kontsumizioa eskatzeaz batera, kasuren bat agertuz gero haren gertukoak identifikatzeko.

Turista gisa bidaiatzerik ere ez dago Alemanian, eta lan kontuengatik atzera-aurrera gabiltzanok ere ez dugu beti erraza. Lanean ari garela ziurtatzeko agiri eske ari zaizkigu denean. Tailerretan ere sekulako segurtasun neurriak bete behar izaten ditugu. Hemen, tailer batzuk bidaiatzeari ere uko egin diote, bezeroak eskean jardun arren. Askotan lehenesten dute osasuna ekonomiaren gainetik eta horrek argi erakusten du zein herrialde aberatsa den hau. Laguntza handiak jasotzen ari direla ere badiote; ez dakit. Aireportuetan, esaterako, debalde egiten dizkiete PCR probak arriskuko herrialde batetik iristen direnei. Nolanahi ere, arriskuko herrialde batetik Alemanian sartzen den orok bost eguneko berrogeialdia bete behar du. Jakina, denak ez daude konforme neurriekin, baina oro har guk ikusten duguna da alemaniarrek arduraz ari direla jokatzeko. Angela Merkelek ere esan zuen arduraz jokatzeko zegoigula, ez bagenuen nahi askorentzat azkeneko Gabonak izatea. Begira, gu sei laguneko kuadrilla bat gara hemen: Euskal herritarrek gara bost, eta sei garrena, alemaniarra. Lau etxetan bizi gara, baina, eta horregatik erabaki dugu aldi batez ez elkartzeko, gehienez bost lagun elkartu daitezkeelako etxeetan, bi familia-unitatetakoak. Jendeak oso barneratuta ditu hemen neurriak eta esango nuke bizilagunek ere azkar hartuko luketela kargu hemen etxeren batean behar baino jende gehiago batu dela sentituz gero”.

IÑAKI ANSOLA, Mausitxa baserrikoa

“Gure perspektibak oso txarrak ziren azaro azkenaldera. Guretzat arkumea ondoen saltzen den garaia Gabonak izaten dira, arkumea garestien orduan saltzen delako. Eta aurten ikusten genuen dena itxita zegoen horrekin, ez genuela aterabide onik izango, baina joan zen astean iragarri zuten irekierarekin eskaera apur bat handitu da aste honetan Gabonetarako. Prezioak oraindik lotu gabe dauzkagu, hala ere. Hori bai, garbi daukagu aurreko urteko salmentarik ez dugula izango. 2018ko Gabonetan arkumeak hartu zuen prezioa lortzera iritsi nahiko genuke, baina ez dakigu zer izango den. Guk Harakai kooperatibari saltzen dizkiogu arkumeak, hainbat ganaduzale eta artzainek sortutako kooperatibari. Zer gerta gaude denok, guretzat arkumeak ez saltzea galera handia litzatekeelako. Euskal Herrian esnetako arkumeak nahi izaten ditu jendeak, arkume txikiak. 20-22 bat eguneko direnean kentzen ditugu. Labela izateko, bizi-pisuan gehienez hamabi kilo izatea eskatzen dute, eta kanalean, 6-8 kilo. Martxoan ibili ginen estu hemen. Gabonetan, arkumea etxean jateko ohitura daukagu, baina, udaberrian jatxetara saltzen dugu bereziki, eta martxoan dena itxita zegoenez, arkumeen salmentak hondoa jo zuen. Orduan, administrazioak diru bat jarri zuen eta arkume guzti horiek izoztu egin ziren eta Eroskik konpromisoa hartu zuen izoztutako bertako arkume hori saltzeko. Modu horretan salbatu genuen kanpaina.





JANIRE ELORDI

“Gabonetan 29 bat senide elkartu ohi gara gu baserrian, Ospasen. Mendaron bizi garenoz gain, Etxeberriko, Azpeitiko, Bergarako, Eibarko eta Zarauzko senideak elkartu izan gara eta guretzat egun bereziak izan ohi dira. Badira lau urte etxeko nagusia, aitxitxa (Bitoriano Loiola soinujolea) hil zitzaigula, baina bere azkeneko urteetan lau belaunaldi batu izan gara gurean. Esan beharrik ez dago halako gonbidautza baterako lana ere gogotik egin behar izaten dela eta lanaren parterik handiena gure amen bizkar jausi izan dela sarri. Gabon eguneko menua antzekoa izaten da beti: Pikatzeko zerbait lehenengo: zainzuriak, jamaia, patea eta antzekoak; gero, oilo-zopa goxoa; ondoren azak olio errearekin onduta, bakailaoa pil-pilean eta oilasko-erreak gero, eta azkenbururako, sagar-konpota, gatzatua, piña, gozoak eta kafea. Esan dizudan bezala, gure amek sekulako lana hartzen zuten eta horregatik azkeneko urteotan lanak banatzen saiatu gara. Oilaskoak Aizpen erretzen ditugu, esaterako. Izugarri ondo pasatzen dugu Gabonetan. Ez dugu nahi beste ikusten elkar, urrutira gabekoak izan arren denok ere, eta egun horretan kontu askoren inguruan hitz egiteko aukera izaten dugu. Afalostean, bertso idatziak ere kantatzen ditugu. Etxeberriko lehengusuak, Xeberrek, ekartzen ditu, eta lehen, aitxitxa bizi zenean, hark laguntzen zigun soinuarekin. Kalejiraren bat ere inprobisatzen dugu: ate batetik irten eta bestetik sartuz, atarian buelta emanda.

Aurten, baina, ez gara batuko. Abuztuan bisitan etorri zitzaigun Jokin lehengusua eta garbi esan zigun: “Janire, gurasoen artean arrisku taldeko asko dauzkagu eta aurten ezingo dugu egin”. Garbi zeukan, eta halaxe, bertan behera lagatzea erabaki genuen. Aurten, beraz, bakoitzak bere etxean ospatuko ditugu Gabonak gurean. Pena da, baina ez dago besterik. Hori bai, uda aldera, dena aldeko bada, baserriko atarian batzekotan gelditu ginen. Batek daki. Beharbada hori ere ezingo da egin, baina tira, ilusioa badugu.

LUIS MENDIKUTE

“Hamabi bat etxetako 30 senide inguru batzen gara gu urtero Aizpe elkartearen abenduaren 31ko afarian. Taldeko edadetuena gure ama da, Manuela Zabala, 95 urterekin, eta gaztena, Jon Mendikute, ilobaren semea, 2 urtekoa. Mendikutetarrak asko gara eta leku asko behar dugunez, Aizpen batzen hasi ginen duela hogeitaka urte. Lehen, aspaldi batean, anaietako batek zeukan txoko batean batzen ginen, baina bota zuten lokal hura ere, ufalen ondorioz, eta geroztik, Aizpen batzen gara. Gure familia ere asko hazi da ordutik. Bost anaiak gara gu, bi-hiruna seme-alaba dauzkagu eta gazteetako asko ere guraso dira. Pentsa! Gabon zaharreko afaria bi anaiaren artean lotu ohi dugu, ilobaren baten laguntzarekin. Lana da, baina gustura egiten dugu, familia elkartuta ikustea gauza handia delako. Ez dugu aparteko ezer egiten: jan, edan eta berba mordo bat. Ez gara gu urte zahar gabez elkarri musuka-eta ibiltzen direnetakoak. Hori bai, egun horretarako kroketa lehiaketa ere antolatzen dugu. Anaiak Pedrok eta biok eta iloba Amaiak prestatzen ditugu, eta pike sano bat erabiltzen dugu. Menua, bestela, antzekoa izaten da urtero: sarrerakoa, bakailaoa eta azpizuna edo txuletak. Aizpen ikusten ditugu kanpaikadak eta hantxe jaten ditugu hamabi mahats aleak ere. Aizpe goraino beteta egoten da egun horretan. Urteroko familiak batzen gara han. Aurten, baina, elkartearen itxita dago eta egoerak berak ere ez du uzten horrenbeste jende elkartzen. Arduragabekeria handia litzateke. Guk geuk aurten ez elkartzea erabaki dugu, zentzudunena hori delakoan. Nork bere etxean ospatuko ditu aurten Gabonak gure familian. Ama bakarrik bizi da, eta anaietako baten etxean ospatuko ditu aurten. Hori bai, eguerdian, eta eguraldiak laguntzen badu, pintxo bana jango dugu ziurrenik anaiok kalean amarekin.



Gabonetan ere, arduraz



2020a berezia izan da ia hasieratik, eta amaiera ere halakoxea izango da. Gabonak izaten dira urte amaierako festa nagusiak: senideen arteko bilkurak, kantujirak, Olentzero eta Mari Domingiren kalejirak, Errege Magoen desfileak, azokak, San Silvestreak... horiek eta gehiago izaten dira herrietan urtea amaitu aurreko azken egunetan eta jendea pozarren ibiltzen da kalean, urte osoan zehar ikusten ez dituen lagun eta senideak agurtzen. Aurten, baina, ez da horrelakorik egongo. Koronabirusaren pandemiak Gabonak ere baldintzatu ditu, eta debekatu egin dituzte jende multzo handiak pilatzeko bidea ematen duten ekitaldiak. Mugikortasuna bera ere mugatuta egongo da, elkarte gastronomikoak itxita eta etxeetan ere debekatuta senide multzo handiak biltzea. Ezer ez da berdina amaitzear dagoen urte honetan. Hemen duzue lerro hauek idazterakoan indarrean zeuden arauen laburpena. Dena den, Eusko Jaurlaritzak argi laga zuen gerta daitekeela neurriak gehiago murriztea.

1. Etxeratze agindua: 22:00etatik 6:00etara ezingo da kalean ibili. Salbuespena egingo dute 24ko eta 31ko gauetan. Bi horietan etxeratze ordua 1:30era atzeratuko da. Kultur ekitaldiak 21:00etarako amaitu behar dira.

2. Konfinamendu perimetrala: Abenduaren 23ra arte Lurralde Historikoa izango da muga; gure kasuan, Gipuzkoa. Abenduaren 23tik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoko probintzia batetik bestera libre mugitzeko aukera egongo da, baina EAEtik beste komunitate autonomoetara irtetea debekatuta egongo da, egun jakin hauetan izan ezik, eta betiere, senide edo gertukoren bat bisitatzeko: 23tik 26ra eta 30etik urtarrilaren 2ra. Egun horietan bakarrik irten ahal da EAEtik. Etxera, aldiz, edozein egunetan itzuli ahal izango da.

3. Biltzeko muga: Gehienez sei pertsona biltzeko neurria mantentzen da. Salbuespenak izango dira abenduaren 24a, 25a, 31a eta urtarrilaren 1a. Gehienez 10 pertsona bildu daitezke egun horietan. Iradokitzen da batetik 10 pertsona horiek bi bizikidetzat unitatekoak izatea edo gehienez bi unitatekoak, eta, ahal dela, pertsona berdinak biltzea egun guztietan.

4. Ekitaldiak: Jai eta gabon ekitaldiak bertan behera geratu dira. Abenduaren 21etik aurrera jende ugari pilatzen duten ekitaldiak debekatuta daude. Gabon eta errege egun bezperako kantu taldeak, urte berri festak, Santomasak, kabalगतak edo San Silveste gisako kirol probak.

5. Ostalaritza: Tabernak eta jatetxeak 20:00ak arte egongo dira zabalik, bai terrazak, eta baita lokalak ere. 06:00etatik aurrera ireki ahal izango dituzte berriro. Aurreko hamalau egu-

netan 100.000 biztanleko 500 positibotik gora izan duten herrietan, ostalaritzak itxita jarraituko du, baina neurri horrek ez die eragingo 5.000 biztanletik beherako herriei. Barruko edukiera %50ekoa izango da, eta terrazetan, %100ekoa. Terrazetan ez erretzeko gomendioa egin zuen Urkullu lehendakariak, eta gogorarazi zuen maskara derrigorrezkoa dela. Maskara behar bezala ez erabiltzea zigortzeko moduko jokabidea dela gogorarazi zuen.

7. Saltokiak: 150 metro koadrotik gorako dendetan %60ko edukiera gehienez, eta % 75eko edukiera 150 metro koadro arteko dendetan. 65 urtetik gorakoek lehentasuna izango dute dendetan. 21:00etarako itxita egon behar dute saltokiek.

8. Kirola: Kirol federatuko entrenamenduak baimenduta daude seiko taldeetan. Aldagelak %30eko edukierarekin erabili behar dira, eta dutxak banaka. OMEren gomendioa aipatu du Urkulluk esateko ez dela derrigorrezkoa izango musukoa erabiltzea txapelketetan edo jarduera fisiko intentsu egoeretan, baina derrigorrezkoa izango da eremu itxietan praktikatzen diren kiroleetan eta jende asko biltzen den eremu urbanoetan.

9. Zahar etxeak: Gabonetako jaiegunak familiarekin igartzeko aukera izango dute egoiliarrek, baina bueltatutakoan PCR proba egingo diete, eta berrogeialdia bete behar dute. Hala ere, zahar etxeak edo udalerriko osasun egoera larria bada, irteerak bertan behera geratuko dira.

10. Hilbeilak eta ehorzketak: Erligio ekitaldietan, gehienez edukieraren % 35 onartuko dute.



VIII. URTEURRENA

Kerman Moreno Iriondo

*Mendietarantz pausoa luzea
bizitzak krudel haizea
nola gainditu, nola arindu
zu hemen ez izatea.
Zure goxoa, zure barrea
gertu beti umorea
ez hiltzen zenbat saiatzen garen
bizitzen gutxi, ordea,
gugan landatu dituzunekin
segiko dugu bidea.*

Etxekoak

2012ko abenduaren 20an hil zen, 43 urte zituela.
Haren oroimenez VIII. urteurreneko meza izango da, domekan,
abenduaren 20an, 11:30ean Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenei alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Jesus Zubiaurre Artetxe

2019ko abenduaren 24an hil zen, 69 urte zituela.

*Zure falta botatzen dugu,
batez ere, zure entzuteko
gaitasun ahaztezina.
Beti gure bihotzetan.*



I. URTEURRENA

Máximo Martínez Yuba

2019ko abenduaren 20an hil zen, 93 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
abenduaren 20an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenei alde zurretik eskerrak.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*

GYS SPORT **CASA ELGOIBAR**
ASTIGARRAGA

Tiket hau aurkeztuta LaLiga bali ofiziala lortu ahal izango duzu **%10**eko deskontuarekin!



Errosario, 18 - 943 743 268
 Errosario, 21, behea - 943 744 386




Tiket hau aurkeztuta **%10**eko deskontua izango duzu praktetan.

Gizonezkoen ile-apaindegia
 JOSE ANTONIO

HITZORDUA BEHARREZKOA DA
HEPA iragazkiak dituen **AIRE-ARAZGAILUA** duen lokala.

Ilea zaintzeko **KERASTASE** eta **L'OREAL** tratamenduak.

Gabonetako ordutegiak:
www.peluqueriajoseantonio.com

Gabon zoriontsuak!

Errosario kalea, 30
 943 741 492

G & M
 San Bartolome, 21
 943 033 476



Tiket hau ekarriz gero, **%10**eko deskontua lortuko duzu gizonezkoen edozein artikulutan.

Festak

.....

Tokiko merkataritzak herriko edo auzoko festak eta jarduerak babesten ditu. Ohikoa da auzo edo herrietako elkar-tekak ikustea tokiko dendetan laguntza eskatzen eta merkatariek aurrekontu bat izaten dute jarduera horiek babesteko.

DOÑA MERCEDES

San Frantzisko, 21
 20870 Elgoibar
 Tel.: 943 742 652
 943 742 137



GABON HAUETAN OPARITU
 DOÑA MERCEDESEKO **JAKI-SASKIAKI!**

ESTUDIOS ARRILLAGA
 Errosario kalea, 15 behea - Elgoibar
 Tel.: 943744019 / 605713168



Beherapen handiak beheko solairuko altzari eta apaingarrietan. Bisita gaitzazu. Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

bitxiak
 San Frantzisko, 27
 645 788 492

Tiket hau aurkeztuta **%10**eko deskontua izango duzu bitxietan.



Sara
 Rosario, 14 - 943 743 555

Moztu eta ekarri tiketak! Dendan egindako edozein erosketatan **%10**eko deskontua lortuko duzu.



estetikaalire

Upaiz zaharra, 1 behea - 943 531 636
alireestetico@hotmail.com

GABONAK

THALGO

Instagram: Tiket hau ekarri zere %10eko deskontua lortuko duzu Thalgo etxean

Facebook

GARATE

JANTZI-ORRIAL

943 741 129 - 688 867 348

300€

Ekarri txartel hau zure datuekin eta **abenduaren 24an 300 €ko** bale baten zozketan parte hartuko duzu.

Izen-abizenak: _____
Telefonoa: _____

HAIR'S

ILEA PAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 53 12 79

Astearteetan JUBILATUEN EGUNA:

- Orraztu 10€
- Garbitu, moztu eta orraztu 20€

Abenduaren 24an eta 31n goizez zabalik!

Gabon zoriontsuak!

ARMUETA HARATEGIA

ANGEL ARRIZABALAGA

943 740 640 - 630 225 428

Jatekoa prestatzen dugu enkarguz, lagunarteko oforduetarako, zein etxerako. Piper beteak, albondigak, okela gisatua...

ETXEAN HAZITAKO TXAHAL-OKELA

Ekologia

.....

Tokiko merkataritzak ekologia bultzatzen du, tokiko ekoizleen produktuak edukitzeaz gain, kontsumitzaileek gutxiago kutsatzen dutelako, tokiko merkataritzan erostean ez baitute desplazamendu luzerik egin beharrik. Gutxiago kutsatzen da.

IRIA

Tiket hau aurkeztuta **%10eko** deskontua izango duzu kiral-jertsetan.

IRIA BARRUTA SATE ANTIKAR

SURYA

BELAR-DENDA

943 742 534 630 878 054

Instagram: surya-belardenda@hotmail.com
San Frantzisko, 23 - Elgoibar

Era guztietako zailtasunez betetako urtea pasa eta gero, oraindik ere pandemiaren kontra borrokan ari garen honetan, urte berriari aurre egiteko osasun eta ilusio handia izateaz gain, gabon jaiak bakerako eta zorionerako babesleku izatea opa dizuegu Surya Belardendatik.

Santa Ana, 18
Elgoibar
943 741 864

AGURTZANE

ghd good hair day

30 €ko deskontua ghd tresna guztietan

Zorionak eta urte berri on!



Lazaro Astigarraga Loyola

2020ko abenduaren 5ean hil zen, 84 urte zituela.

Betirako izango zaitugu gogoan.

SOCIEDAD ATLÉTICA EGOTOKI



Lazaro Astigarraga Loyola

2020ko abenduaren 5ean hil zen, 84 urte zituela.

***Atzo, gure ondoan
gaur, gure oroimenean,
betirako gure bihotzetan.***

Eskerrik asko une zail hauetan
gurekin egon zaretenoi.



Juan Cruz Gabilondo Muguerza

2020ko abenduaren 10ean hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Ion Gabilondo Garate

2019ko abenduaren 27an hil zen, 55 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
abenduaren 27an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Urtebete da gure artean ez zaudela.
Handia da benetan zuk lagatako hutsunea.
Zure oroitzapenak, baina, bete egiten gaitu
eta, gure bihotz barrenean zaitugu.
Bidelagun izango zaitugu.***

Etxekoak



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Lekuederreko parkean argi gutxi dago: "Lekuederreko parkean dagoen farola batek bost argi ditu, baina horietako bi baino ez dira pizten, eta ondorioz, ingurunea ilun geratzen da. Jakin nahi nuke Udalak ba al daukan hori konpontzeko asmorik". Hirigintza Saileko arduradunak esan duenez, jakinaren gainean daude, eta konpontzekotan dira".

Maltzagarako bidegorrian ez dago zakarrontzirik: "Maltzagarako bidegorrian zakarrontziak falta dira. Txakurrarekin joaten naiz eskotan Maltzarako bidegorriira, eta haren kaka jasotzen dut, baina ez dago zakarrontzirik gero kaka botatzeko. Eskertuko genuke bide horretan tarteka zakarrontzi batzuk jartzea".

Errosario eta San Bartolome kaleen arteko karkaban usain oso txarra dago: "Errosario eta San Bartolome kaleen arteko karkaban oso usain txarra dago aspalditik, eta egun batzuetan bizilagunok ezin izaten dugu leihorik ere zabaldu. Jasanezina da. Badirudi hodiren bat edo zerbait hondatuta dagoela. Etxeak aireztatzeko eskatzen digute alde guztietatik, eta guk ezin ditugu leihoak ireki. Udalari eskatu nahi diogu karkaba hau garbitzeko". Hirigintza Sailetik jakinarazi dute Gipuzkoako Urak enpresak egingo dituela karkabako konponketak. Hondatuta dauden hodiak berriro eta konponduko dituzte, usainen arazoari irten-bidea emateko. Datorren urtean egiteko aurreikuspena dagoela zehaztu dute.

Eskerrik asko Mufomi museoko Javi Vargasi: "Orain dela bi aste Mufomi museora egin genuen bisita umeekin, eta eskerrak eman nahi dizkiogu Javi Vargas museoko arduradunari, eman zizkigun azalpenengatik, eta txalo bero bat urteetan egindako lanagatik. Museo hori herrian daukagun altxor txiki bat da, gertuko erakundeek ongi babestu eta promozionatu beharko luketena".



Lidia Iriarte Villanueva

"Tolosa"

2020ko abenduaren 7an hil zen,
84 urte zituela.



**Zure irribarrea eta bizipoza
ez ditugu ahaztuko.
Beti gure bihotzetan.**

Etxekoak

Doña mercedes



G&M jantzi denda

Jose Antonio ileapaindegia



Azkue argazkiak

Karkizano



Aramburu bitxi denda

Kala loradenda



Sara jantzi denda



Arauri lurrindegia/estetika



Textil Hogar



Iriondo Kirolak



Ecenarro



Maria Urizar ileapaindegia



Ziarda harategia



Olaia Martinez



Ferpi modak



Idama ileapaindegia



Astigarraga kirolak



Armuetarategia



Pitxintxu



Kemen belardenda



Agurtzane ileapaindegia



Garate jantzi denda



Cristina Garcia Estetika



Iria jantzi denda



Alire estetika



Estudios Arrillaga



Hair's ileapaindegia



Leire ileapaindegia



Surya belardenda



**mila
esker**



Belaustegi Baserria



JATETXEA

*Etxekoekin batera
gozatu ospakizunak
lekua har dezatela
bake eta maitasunak.
Besarkada bat bihotzez
Urte berri on, lagunak!*

www.belaustegi.com



San Migel Gaina z/g

Tel.: 943 743 102





2020 urteari errepassoa





■ **URTARRILA:** Urazandiko Bizilagunen Elkarteak sortu zuten, auzoan bizi direnen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin. *Urazandiau-zoa.blogspot.com* bloga sortu zuten eta posta elektronikoa ere jarri zuten auzokoekin eskura: *urazandiau-zoa@gmail.com*. Era berean, buzoia ere jarri zuten Auzo Taberna, auzokoekin euren proposamenak eta ekarpenak lantzen zituzten.



■ **URTARRILA:** Juan Antonio Urbeltz koreografo handiak sortutako *Martin Zalakin* obra iritsi zen Elgoibarera. Pio Baroja idazlearen *Zalakain abenturazalea* obran oinarritutako lana, Harkaitz Canok egokitutakoa antzerkirako. Ikuskizunean Haritz Euskal Dantzari Taldekoekin ere parte hartu zuten, bai eta Eibarko Kezka dantza taldekoekin ere. Josu Garate dantzari eibartarra jardun zen Martin Zalakin azalean.



■ **URTARRILA:** Iker Izagirre pilotariak Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen, infantiletan. Andoingo Gazteleku taldeko Segurola izan zuen aurkari elgoibartarrak. Alex Bergua ere lehiatu zen txapelketa hartan, kadete mailan, baina finalerdietan kanporatu zuten.



■ **URTARRILA:** Markel Bergarak (Elgoibar, 1986) futbola laga zuen, belauneko lesio batek behartuta. 12 urte zituela hasi zen Realean jokatzen, eta 33 urterekin hartu zuen erretiroa. Bere ibilbidean, Realean egin zituen urte gehien, 10 denboraldi, baina Eibar, Vecindario eta Getafe ere jokatu zuten.

■ **URTARRILA:** Inazio Izagirre eta Juan Mugertza atleta elgoibartarrak ekarri zituzten gogora Anberesko Olinpiar Jokoetan parte hartu eta 100 urtera. Espainiako delegazio batek Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen aurreko aldia izan zen Anbereskoa, 1920an. Espainiak 56 kirolari eraman zituen, tartean bi elgoibartarrak.



■ **OTSAILA:** Lan, pensio eta bizitza duinak aldarrikatzeko mobilizazio jendetsuak egin ziren Elgoibarren eta Eibarren, Eskubide Sozialen Gutunak deitutako greba egunean, urtarrilaren 20an.



■ **OTSAILA:** CodeSyntax enpresak garatutako Egunean Behin aplikazioak jaso zuen Interneteko Argia Saria. Usurbilgo Atxega jartetxean banatu zituzten sariak, eta CodeSyntaxeko lantaldearen izenean, Maite Rementeria elgoibartarrak jaso zuen saria, enpresako diseinatzaileak.



■ **OTSAILA:** Sonia Archelik urrezko domina irabazi zuen Badaiotz taldearekin Munduko Sokatira Txapelketan. Irlandan jokatu zuten txapelketa eta 540 kiloko eta 500 kiloko kategorian eskuratu zuten urrezko domina, bigarrenen Euskal Herria ordezkaten.



■ **OTSAILA:** Arkaitz Egañak irabazi zuen Elgoibarko Ehiza Xehe Txapelketa, hirugarren urtez jarraian. David Conde sailkatu zen bigarren eta Luis Mari Terron izan zen hirugarrena. Beteranoetan, Asier Arriola gailendu zen.



■ **OTSAILA:** San Bartolome parrokiako organoak 125 urte bete zituen abenduan, eta urteurrena ospatzeko meza berezia egin zuten otsailaren 21ean. Akilino Amezuak (Azpeitia, 1947-1912) egin zuen organoa, eta 1895eko otsailaren 21eko mezan estreinatu zuten. Ildefonso Lizarriturri izan zen organoa jo zuen lehenengoa. Gaur egun, Juan Luis Agirre eibartarra da Elgoibarko organo jolea.



■ **OTSAILA:** Verter Recycling 2002 SM enpresaren Eitzagako (Zaldibar) zaborteziak krak egin zuen otsailaren 6an eta 500.000 metro kubo lur eta hondakin jausi ziren A-8 autobide-raino. Hondamendi hartan bi langile, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran, galdu ziren hondakin artean. Ondorengo egunetan suak piztu ziren inguru hartan eta normala baino dioxina eta furano kontzentrazio handiagoak neurtu zituztenez hainbat neurri hartu zituzten Zaldibarren, Ermuan eta Eibarren. Abuztuan topatu zituzten Sololuzeren gorpuzkinak, baina Beltranek galduta jarraitzen du, eta zaborteziaren kudeaketaren inguruko kontu asko eta asko argitu gabe daude.

■ **APIRILA:** Ioseba Arrizabalaga Mendikute hil zen, 43 urte zituela. Bi legegintzaldiz izan zen Arrizabalaga Elgoibarko Udaleko zinegotzi, eta hil zenean, Sigma Probaleku Herri Kirol Elkarteko sustatzaileetako bat ere bazen. 2011n hartu zuen estreinakoz zinegotzi kargua, Alfredo Etxeberria alkate zela, eta legegintzaldi haren ondoren, berriz aukeratu zuen EAJk zerrendarako. Landa eremuko ardurak bete zituen, bai Etxeberriaren agintaldian eta baita Ane Beitia egungo alkatearen lehenengo legegintzaldian ere. Era berean, Sallobente-Ermuaranbide auzoko alkate ere izan zen. 2008an hartu zuen alkate kargua. Udalean Landa Inguruko Sailaren ardura izan zuen garaian, beste kargu eta ardura batzuk ere bete zituen. Habitat Batzordeko kidea izan zen, esaterako, eta Debabarrenako Mankomunitatean eta Badesan ere bera izan zen Elgoibarko ordezkaria.



■ **APIRILA:** Agustín Gorostiza hil zen apirilaren 15ean 83 urte zituela. Gorostizaren izena Elgoibar Ikastolari oso lotua egon zen. 1975. urterako ikastolan lanean bazebilen ere, aurretik ere ezkurtuan ibili izan zen ikastolaren sortze lanean. Administrazio arduraduna izan zen. Elgoibarko ikastolan ez ezik, Gipuzkoako ikastolen gorabeherak ere gestionatzen zituen. Ikastolaren eta euskararen alde jardun zen, harik eta 1997an erretiroa hartu zuen arte.



■ **APIRILA:** Oier Etxaniz gaztea hil zen apirilaren 17an, Udal Musika Bandako eta Mausitxa txarangako kidea. Minbiziak hil zuen Etxaniz eta haren oroimenez *Xalbadorren heriotzean* kanta abestera deitu zuten herriko haren lagun musikariek. Informatikaria zen Etxaniz, eta azken urteetan boluntario lanetan aritu zen Aspanogin minbizidun haurrak entretenitzen. EHUko ikertzailea zen, eta minbizia ikertzen ari zen hainbat onkologorekin elkarlanean. Hil zenean doktoregoa egiten ari zen bioinformatikan, eta irailan zuten tesia aurkeztekoa.



■ **MAIATZA:** Amiantoa agertu zen kiroledegi berriko obretan. Hondakin horiek kudeatzeko, Udalak lan plan bat eskatu zion Amianto y Gestión enpresa espezializatuari eta txostenean jaso zuten 60m³ lur eta 5 ml lurzoruhodi kendu eta enkapsulatu behar zirela. Maiatzean amaitu zituzten horiek kentzeko lanak. Udaletik jakinarazi zuten amianto kantitatea “oso txikia” zela eta ez zela inguruko bizilagunei arriskurik sortu. EHBilduk informazioa behar den moduan landu ez izana egotzi zion Udal gobernari eta salatu zuen Udalaren webgunetik jakin zutela eurek gertatutakoaren berri. Bizilagunekin biltzeko eta “beharrezko azalpenak” emateko eskatu zuten.



■ **MAIATZA:** Mugertza krosa hirugarren postuan sailkatu zuten, Espainiako krosen sailkapenean, Burgosen jokatzeko den Atapuerca krosaren eta Sevillako Itálica krosaren atzetik.



■ **EKAINA:** Azkoitiko Udalak ezetza eman zion Larke 360 enpresak Azkaraten egin nahi zuten hondakin plantaren proiektuari. Hautsak harrotu zituen proiektu honek eta eztabaida luze baten ondoren, bertan behera lagatzea erabaki zuten Azkoitiko Udalak.



■ **EKAINA:** Carlos Cebrian musikari mendararra hil zen ekainaren 3an, 48 urte zituela. Mendaroko kultur ekintza askotan eragile izan zen Cebrian, eta musika talde askotan jardun zen urteetan: Lili Moon rock taldearen sortzaileetako bat izan zen eta Uler 600, Andra eta Munlet taldeetan ere ibili zen. *L.E.D. Lunático Encerrado en un desván* bakarkako lana ere sortu zuen eta bera izan zen Gararock jaialdiaren bultzatzaile nagusienetarikoa. Elgoibarko Sinuöse taldearekin elkarlanean ere aritu zen. Cebriday eguna ospatu zuten Mendaron, Carlos Cebrian musikaria hil zenetik hilabetera. Lagun giroan eta bere kantuekin omendu zuten musikari mendararra.



■ **UZTAILA:** Sebas Etxaniz preso elgoibartarrari hirugarren gradua eman zioten eta Euskal Herriko espetxe batera gerturatu zuten. 2002an espetxeratu zuten Etxaniz, eta azken urteak Villavonako (Asturias) kartzelan egin ditu. Etxanizek 2019an bete zituen zigorraren hiru laurdenak. Gaur egun etxean dago, zaintzapean.



■ **UZTAILA:** Slavoj Žižek filosofo esloveniarraren *Pan(dem)ic* saiakera laburra itzuli zuen Danele Sarriguarterek. *IZURRI!* Izenburupean argitaratu zuten euskaraz.




■ **UZTAILA:** Legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziren uztailaren 12an, eta joera orokorra errepikatu zen Elgoibarren eta Mendaron: EAJk irabazi zituen hauteskundeak, eta EHbildu izan zen bigarren indarra bi herrietan. Abstentzioak markatutako hauteskundeak izan ziren: botoa ematera deituta zeuden %52,8k eman zuten botoa. Maialen Gurrutxaga eta Iruñe Berasaluzek EAJko legebiltzarkide izaten jarraitu zuten.



■ **UZTAILA:** Elgoibarko 30 eraikinetan dauden ikur frankistak kenduko zituztela jakinarazi zuen Elgoibarko Udalak. 4.222 euro erabili zituen horretarako.




■ **UZTAILA:** 36ko gerrako lehegailu bat aurkitu zuten San Frantzisko kaleko etxe bateko ganbaran. 23. atarian etxea erosi berri zuen bikoteak aurkitu zuen, ganbara garbitzen ari zirela. 81mm-ko valero morteroa zen.



■ **UZTAILA:** Bateragune auziko zigorrak baliogabetu zituen Espainiako Auzitegi Gorenak uztailaren 31n, eta horrenbestez, Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusiari ezarritako 2021eko otsailera arteko inhabilitazioa ere bertan behera gelditu zen. Abenduan epaiketa berriz egitea erabaki zuen Auzitegi Gorenak.



■ **UZTAILA:** Joan Mari Torrealdai hil zen 77 urte zituela uztailaren 31n. Euskal idazlea, euskaltzaina, kazetaria eta soziologoa zen. *Jakin* aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen eta 42 urtez izan zen bera zuzendaria. 1980an *Euskaldunon Egunkarian* sartu zen eta administrazio kontseiluko lehendakaria izan zen, 2003ko otsailaren 20an itxi zuten arte.



■ **ABUZTUA:** Photo Klean argazki erakusketa jarri zuen ikusgai Eduardo Arrillaga argazkilariak. Sanbartolomeetako ekintza gehienak bertan behera geratu ziren arren, hiru erakusketa jarri zituen ikusgai Udalak, eta Eduardo Arrillagarenak jaso zituen herritarren begiradarik gehienak. Sokamuturreko erretratuak jarri zituen sokamuturraren ibilbidean eta Txiki Eguneko irudiak Errosario kalean, denak tamaina erraldoian inprimituta. Txiki Eguneko erreportajea oraindik bukatu gabe dauka argazkilariak, eta aurrerapen modura erakutsi zituen zortzi irudi. Oso pozik geratu zen herritarren erakusketari egin zioten harrerarekin, baina izan zen erakusketari eraso egin zionik ere, eta irudi batzuek Deba ibaian bukatu zuten. Arrillagak berak berreskuratu zuen horietakoren bat errekatik.



■ **ABUZTUA:** Buruhandi berriak estreinatuzeko asmoa zeukan Udalak aurtengo sanbartolomeetan, baina jaiak bertan behera utzi zituztenez, jendaurrean aurkezteko erakusketa egin zuten, Aita Agirre kulturguneko atarian.



■ **ABUZTUA:** Abuztuaren 10ean hasi zituzten Urazandi auzoan eskailera mekanikoak kendu eta igogailua jartzeko lanak. 423.066,05 (BEZ barne) inberituko ditu Udalak obra honetan. Tarte horretan auzoko bizilagunen irisgarritasunean laguntzeko autobus zerbitzua jarri zuten martxan.



■ **IRAILA:** Gimnasioa zabaldu zuten Mendaron irailaren 1ean. Kirola egiteko hogeit hamar makinarekin zabaldu zuten eta zazpi ikastaro eskaintzen hasi ziren. Bi begirale ari dira lanean gimnasioan eta astelehenean zapatura arteko zerbitzua ematen dute, astean zehar goiz eta arratsaldean, eta zapatuetan, goizez.

■ **IRAILA:** Mausitxak hirugarren egin du Ordiziako Gazta Lehiaketan. Pandemia dela-eta, Euskal Jaietan Ordizian egin zen ekintza bakarra izan zen. Guztira 43 gaztagile lehiatu ziren. Arabako gaztek lortu zituzten aurreneko postuak: Larreako gaztagile Patxi Lopez de Uralde Fernandezek aurkeztutako gaztari eman zioten lehen saria, eta Araiako Unai Lekuona Ruiz de Luzuriagak eskuratu zuen bigarrena.



■ **IRAILA:** Arraun denboraldiko bi garaipen estimatuenak, Kontxako Bandera eta Euskotren Liga, eskuratu zituen Orio Arraunketa Elkarteko emakumeek, tartean Leire Garate elgoibartarrak. 'Plenoa' egin zuten bigarren urtez jarraian.



■ **IRAILA:** *Dendaosteakoak* kronika literarioa aurkeztu zuen Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984), bere seigarren liburua. Denda baten (Pitxintxu) eta garai baten historia da liburua, nagusiki bi ahotsek kontatua. Izaskun Estibaritzena da ahots bat, eta Mari Jose ahizparena bestea, eta bien arteko maitasun eta konplizitate istorioa da *Dendaosteakoak*, haien mundua harrapatzeko ahalegin bat.



■ **IRAILA:** Miren Vallejo hil zen irailaren 27an, 97 urte zituela. Euskaltzalea, kulturzalea eta abertzalea, Elgoibarko historia bizia jasotzeko eginahalean ekarpen handia egin zuen emakumea izan zen Vallejo. Memoria ariketa egin behar zenetan, sarri jo zuen aldizkari honek ere Miren Vallejoren lekukotza bila, eta halaxe egin dute memoria historikoa berreskuratzeko lanetan ari diren Elgoibar 1936 taldekoek ere.

■ **IRAILA:** Irailaren 27an estreinatu zuten *Patria* telesaila HBO katean. Hasiera batean maiatzean estreinatzekeoak ziren *Patria*, baina koronabirusaren eraginez atzeratu egin behar izan zuten estreinaldia, eta Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten. Irudietan gertukoa egiten da filma, izan ere ageri diren kaleko irudiak Elgoibar, Soraluze eta Donostian grabatu zituzten bereziki. Gainera, Elgoibar, Mendaro zein inguruetako herrietako makina bat lagunek egin zituzten figurante lanak filmerako. Aktore nagusietako bat, berriaz, Jon Olivares da, Taupada antzerki taldekoa eta Atxutxiamaikan hezitzaile aritutakoa.






■ **URRIA:** Muruamendiara gozotegia itxi zuten, eta horrenbestez, 85 urteko ibilbideari amaiera eman zioten. Familiko negozioa izan zen Muruamendiara gozotegia Jose Muruamendiara eta Maria Bastarrika senar-emazteek 1935. urtean sortu zutenetik, eta harrezgero, haien ondorengoek eutsi zioten tradizioari. San Frantzisko kalean zabaldu zuten denda, gaur egun Rural Kutxa dagoen lekalean.



■ **URRIA:** Franko ohorezko alkate titulurik gabe utzi dute. Franko diktadoreari alkate titulua kentzeko mozioa aurkeztu zuen Podemosek Elgoibarko Udaltzaren osoko bilkuran, eta aho batez onartu zuten.



■ **URRIA:** Amorantek bere estreinako diskoa aurkeztu zuen: *Bat edo hiru*. Aitor Etxeberriaren Forbidden Colours diskoetxearekin ekoitzi zuen. Rodrigo Amarante musikari eta konpositore brasildarrari eta Enrique Morente flamenko kantari espainiarrari dien miresmena adierazteko hartu zuen *Amorante* izen artistikoa Iban Urrizarek (Elgoibar, 1975), bakarkako proiekturako. 2014ko martxoan eman zuen estreinako kontzertua Azkoitiko Matadeixen, musikalki askotan harreman duen Maite Arroita jauregi *Mursegorekin* batera. Geroztik dozenaka kontzertu eman ditu.



■ **URRIA:** PSE-EEko zinegotzi kargua laga zuen Fernando Suarezek. 1999. urtean hartu zuen zinegotzi kargua, Guillermo Garate alkate zela. Bost legegintzaldiz izan zen zinegotzi Suarez, 21 urtez. Une txarrak gutxi izan zirela esan zion BARRENi bere agurrean emandako elkarrizketan, baina zehaztu zuen gogorak izan zirela, "gogoregiak". Ariana Nogalesek ordezkatu zuen Elgoibarko Udalean.



■ **URRIA:** Julen Urruzolak debuta egin zuen Asobal Ligan Irungo Bidasoa esku-baloitaldearekin. Bidasoak Nava taldearen aurka Artalekun jokatu zuen partidari jokatu zuen aurrenekoz elastiko horiarekin eta gol bat ere sartu zuen.



■ **URRIA:** Elgoibarko euskalgintza eta kulturgintza biziberritzeko lehen ahalegin kolektiboa egin zuten aurtengo *Euskara ala ez* jardunaldietan, urriaren 3an. 2008az geroztik, Gotzon Garate zenaren oroimenez prestatu eta antolatu ohi dituzte jardunaldiok Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak elkarlanean. Berezia izan zen aurtengoa. Batetik, COVID-19aren pandemiaren eraginez neurri zorrotzak hartuta egin behar izan zirelako jardunaldiok, eta bestetik, elgoibartarrek aurrekoetan baino kopuru handiagoan parte hartu zutelako aurten. Izan ere, aurten, herrikoak zeuden deituta. Elgoibarren euskalgintzan eta kulturgintzan diharduten adin eta pentsaera askotariko 52 lagun batu ziren IMHn. Talde txikitik jardun ziren lanean goiz eta arratsalde: goizean, herriko euskalgintzaren eta kulturgintzaren egoeraren diagnostia bateratzen eta adosten, eta arratsaldean, kulturarentzat Elgoibarren nahiko luketen markoa irudikatzen.



■ **URRIA:** 'Encuentra el camino. Una historia de búsqueda y felicidad' liburua kaleratu zuen Luis Cerron elgoibartarrak. Irakaslea eta psikopedagogoa da, bai eta aholkularia eta garapen eta hazte prozesuetan bidelaguna ere hainbatentzat. Zoriontasuna bilatzeari buruzko oinarriak jaso ditu bere bigarren liburuan.



■ **AZAROA:** Juan Cruz Sol, Elgoibarrek eman duen futbolariik handienetakoa, hil zen azaroaren 10ean, 73 urte zituela. Valentzian zendu zen Sol, mitotzat daukaten hirian. Solek C.D. Elgoibarren hasi zuen futbol ibilbidea eta goiz hasi zen nabarmentzen, Valentzia taldeko ikuskatzaile batek 16 urte zituenean fitxatu baitzuen, artean jubenila zela. 27 urte zituen arte jokatu zuen Valentzian eta Real Madrilek fitxatu zuen gero defentsa elgoibartarra. Solek lau denboraldi egin zituen talde zurian, 1975etik 1979ra, eta berriro Valentziara itzuli zen, bere ibilbideko azken bi denboraldiak jokatuzera.



■ **AZAROA:** Aitor Etxeberria herriko margolari eta eskulturagilearen *Didaktika* obra ipini zuten azaroaren 10ean Mendaroko sarrerako biribilgunean. Arte moderno eta garaikideko lehen alea da Mendaron eskultura hau, bai eta Aitor Etxeberriak berak herriko espazio publikoan jarri duen estreinakoa ere.




■ **AZAROA:** Euskarazko saiakera onenari dagokion Euskadi Saria eman zioten Uxue Alberdiri, *Kontrako ez-tarritik* saiakerarengatik. Sariak azaroaren 19an banatu zituzten, Bilbon, Azkuna zentroan. Emakume bertsolarien bizipenak jaso zituen Alberdik *Kontrako ez-tarritik* liburuan (Susa). Garai diferenteetan plazaratutako hamabost bertsolarirekin mintzatu zen liburu horretarako. "Emakume modura irakurria izateak eragin al dizu? Eta eragin badizu, nola eragin dizu bertsotan egiteko orduan?" galderak egin zizkien eta haien testigantzetan oinarrituta, emakume bertsolarien jarduna mugatzen duten hainbat mekanismo zerrendatu zituen.



■ **AZAROA:** Euskal Telebistak inoiz eman duen diru-sari handienetakoa irabazi zuen Bruno Guerrero elgoibartarrak. 147.000 euroko saria irabazi zuen *Atrápame si puedes* ETB2ko lehiaketan.

■ **AZAROA:** Elgoibarko bertso eskola bueltan da, lau urteko etenaldia eta gero. Elgoibarko Izarrak 2011n abian jarritako bertso eskolak 2016an bukatu zuen bere ibilbidea, 16/17 ikas-turterako haur gutxik eman zutelako izena. Elgoibarko Udalaren asmoa proiektua indarberritzea zen eta horretarako berriro jarri zuen abian bertso-eskola, Gipuzkoako Bertsozale elkartearekin elkarlanean. Elgoibarko bertso-eskolak 8-12 urte bitarteko 11 ikaslerekin berrekin zion bideari. Astean behin biltzen dira ordu-betez Aita Agirre kulturgunean eta Eneko Beretxinaga soraluzearra aritzen da irakasle lanetan.





■ **AZAROA:** Euskaraldia ariketaren bigarren edizioa egin zen azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean. Guztira 1.499 elgoibartarrek eta 239 mendarorrek eman zuten izena, lehen edizioan baino 304 eta 81 lagun gutxiagok, hurrenez hurren. Izenematea jaitsi egin zen, baina bai Elgoibarko Euskaraldia Taldea eta baita Mendaroko Euskara Batzordea ere oso gustura zeuden herritarrek ariketari erakutsi zioten atxikimenduarekin.

■ **AZAROA:** Osasun Sailaren aginduz, PCR baheketa selektiboa egin zuten azaroaren 26an eta 27an Elgoibarko ambulatorioan. Elgoibarren eta Soroluzen egin zituzten baheketen emaitzak batera eman zituen Jaurlaritzak. Bi herrietan, 13 eta 40 urte bitarteko 1.521 lagunek egin zituzten PCR probak eta zortzi kasu positibo atzeman zituzten guztira, hau da, %0,53ak eman zuten positibo.



■ **AZAROA:** Hamabi tableta erosteko dirua eman zion La Caixak Elgoibarko Jubilatuen Biltokiari. Tableta horiei esker oinarritzko ezagutza digitala hartzeko edo dakitenean sakontzeko bidea izango dute jubilatuak.



■ **AZAROA:** Goazen bildumako Maddiren amona influencerra (Alai) liburua kaleratu zuen Jasone Osoro idazle elgoibartarrak. Bildumako hirugarren liburua da hau. Aurrez, *Iritsi gara* eta *Eiderren egunerokoa* argitaratu zituen. Gaztetxoaren artean hainbeste arrakasta izan duen Go!azaren telesailko pertsonaietan oinarriturik, telebistan ikusiko ez diren hainbat abentura eta pasadizo islatu ditu Osorok Go!azaren bildumako liburu hauetan.



■ **ABENDUA:** Abenduaren 12an zabaldu zituzten berriz tabernak eta jatetxeak, 35 egunez itxita egon ostean. Goizeko 6:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte oro har, eta janaria etxera bidaltzen dutenen kasuan, 21:00ak arte egongo da bertan jasotzeko aukera, eta banaketa 22:00ak arte egin ahal izango dute. Terrazak 100%ean zabaldu dituzte, eta barrualdean %50eko muga dute. Herriak beste itxura bat hartu zuen egun horretatik aurrera.



■ **ABENDUA:** Jone Arriola gazte elgoibartarrak aurkeztutako telesail proiektua izan da Tabakaleraren 2deo sarietan hautatuetako bat. Guztira 99 proiektu aurkeztu ziren aurtengo edizioa, eta uztailean zortzi proiektu aukeratu zituzten ondorengo faserako, tartean, Jone Arriola elgoibartarrarena. Hasieran *Females* izenarekin aurkeztu zuen proiektuari *Larrugorritan* izena jarri dio Jone Arriolak azken fase honetan. Gazteak ardatz dituen telesaila da, eta protagonistek 20 urte inguru daukate. Bost lagunekoa kuadrilla batek emakumeei eta gizonei buruzko estereotipoak eta mitotoak hautsiko ditu. Jone Arriolak istorio hau bere esperientziatik kontatu nahi du, bere egunerokotasunean bizi dituen egoerek gazte askori identifikatzeko aukera emango dielakoan.



■ **ABENDUA:** Hodei Ezpeletak hirugarren egin zuen Euskal Herriko Bigarren Mailako Aizkora txapelketan. Zazpi aizkolarik hartu zuten parte guztira. Lehen bi sailkatuek datorren urtean lehen mailan jokatzeko txartela eskuratu zuten, eta Ezpeleta Euskal Herriko aizkolari onenekin lehiatzeko atarian geratu zen.



■ **ABENDUA:** *Aniztasuna ikasgai* proiektua abiatu zuten Ikastolak eta Herri Eskolak, ikastetxeetako aniztasuna jaso eta ezagutarazteko. Badihardugu elkarreko kideek hainbat jatorritako ikasleak eta haien gurasoak elkarriketatu dituzte, eleaniztasunetik at, kultura eta jatorri aniztasuna ere islatzeko. Elgoibarko Udalaren finantzazioarekin eta lankidetzarekin osatu dute lana, eta 101 ele atarian jarri dute ikusgai material guztia: 101.ahotsak.eus.



■ **ABENDUA:** Gipuzkoako zahar etxeetako langileek berriz ekin zituzten protestak. Grebara jo zuten eta lanuzteak egin zituzten abenduaren 10ean eta 11n. San Lazaro egoitzako langileek ere bat egin zuten deialdiarekin.

Maite Otaño
Gurutzeta baserria, Urnieta

Etsebeak


Bertakoak, kalitatezkoak, gureak.

Orain, inoiz baino gehiago, erosi
ditzagun gure baserritarren
produktuak.


Erosi geurea,
erosi Gipuzkoa.

Elgoibar

COVID-19aren garapena azken 60 egunetan. Kasuak eguneko eta intzidentzia-tasa.



Gaitzaren bilakaera Elgoibarren.



Koronabirusaren urtea


Nekez ahaztuko dugu 2020a, COVID-19ak ilundutako urtea. Martxoan agertu ziren aurreneko kasuak gurean eta luze gabe jabetu ginen birus honek zabaltzeko zuen erraztasunaz. Gaitzari hegoak mozte aldera, derrigorrean aldatu behar izan ditugu gure bizi-ohiturak eta derrigorrean ikasi dugu milaka lagun eraman dituen birus malapartatuarekin bizitzen ere. Dena baldintzatu du aurten koronabirusak, dena ilundu, baina irakaspenen batzuk ere lagako zizkigun ia seguru. Hori bai, koronabirusaz hitz egin ez dugun egunik ez da izan 2020an. Informazio asko sortu du, eta informazioa ez den bestelako kontu asko ere bai, eta ez da erraza laburpen bat egitea, baina hemen duzue ahalegin bat.

- AINARA ARGOTIA -

Urrutikoa ematen zuena iritsi zen hona ere. Otsailaren 28an baieztatu zituzten aurreneko koronabirus kasuak Hego Euskal Herrian: bat, Gasteizen, eta bestea, Donostian. Gasteizko lehen kasu hura Txagorritxu ospitaleko mediku bat zen, hamar egun lehenago Malagan (Espainia) egondakoa. Gipuzkoan egiaztatutako aurreneko kasua, berri, Italia iparraldetik itzuli berria zen pertsona bat izan zen. Hala ere, laster jakin zen bi kasu haiek atzeman aurretik ere gure artean zebilela birusa, eta luzerako izango genuela gainera. Otsail bukaeran, beste foku nagusi bat atzeman zuten, Haron (Errioxa, Espainia), hileta batean. Dozenaka lagun kutsatu ziren han, eta horietako batzuek Gasteizera eraman zuten gaitza. Oso denbora gutxian ugaritu ziren kasuak, eta Araban COVID-19ari aurre egiteko erreferentziatzko ospitalea zena, Txagorritxu, bilakatu zen gaitzaren foku nagusia. Baina piztu ziren su gehiago ere eta sortu ziren foku berriak bazterretan, gehienak Araban eta Bizkaian. Eta luze gabe ohartu ginen izurriaren tamainaz. Martxoaren 11n, pandemia izendatu

zuen Osasunerako Mundu Erakundeak, eta Euskal Herrian lehen kasu haiek agertu eta bi astera, martxoaren 13an, 528 ziren kasu positiboak eta hamalau hildakoak. Eta konturatzerako, aldatu zitzaigun bizimodua denoi.

Martxoaren 9an itxi zituzten Bastidan eskolak, Haroko fokuari lotuta, eta biharamunean itxi zituzten Gasteizko eskolak, hasi haurreskoetatik eta unibertsitatera artekoak. Hurrengo egunean Arabako ikastetxe guztiak itxi zituzten, bai eta Balmasedakoak ere, Bizkaian. Eta martxoaren 12an, Gipuzkoa eta Bizkai osora zabaldu zuten Jaurlaritzak eskolak ixteko agindua [martxoaren 16an itxi zituzten Euskal Herriko beste lau probintzietakoak]. Eskolak itxi arren, ikastetxeetako langileek euren ohiko ordutegia bete behar izan zuten eta ikasleek ere lanean jarraitu behar izan zuten, etxetik. Ahal zen neurrian normaltasunari eutsi behar zitzaiola zabaldu zuten Cristina Uriarte orduko Hezkuntza sailburuak, baina ez zen erraza izan. Egoera berri hartan "galduta" sentitu ziren irakasleak eta eskolatik markatutako eritimoari jarraitzeko zailtasunak izan zi-



tuzten ikasle eta guraso askok. Estresa, egonezina, ziurgabetasuna, antsietatea, kezka eta beldurra moduko sentimenduak entzun/irakurri genituen haien aho eta hitzetan; lagun txarrak, ikaste prozesurako, inondik inora. Eskolak ixteak beste ondorio kaltegarri bat ere ekarri zuten: euskararik gabe gelditu zirela haur asko. Hutsuneak beti diren arren, inoiz baino agerikoago gelditu zen eskolak euskararen indarberritzeari egiten dio ekarpena. Euskara ikasteko lekua ez ezik, erabiltzeko eremu bakarrenetakoa ere bada eskola milaka ikaslerentzat, eta ondorioz, haiek itxita, sei bat hilabetez euskararekin harremana izateko aukerarik gabe gelditu ziren ikasle asko eta asko.

Eta eskolak ixtearekin batera, beste hainbat zerbitzu publiko ere itxi zituzten Elgoibarren eta Mendaron, eta astebururako iragarrita zeuden kultur ekitaldiak ere bertan behera laga zituzten. Mendaron, Motxaila Egunaren barruan asteburu horretan egitekoak ziren ekitaldi guztiak jausi ziren, bai eta Mendaroko Txirrindulari Elkarteak eta Lizarpe Mendi Klubak apirilean egitekoak zuten Kilimon Trail mendi lasterketa ere, eta Elgoibarren, atzeratu egin zituzten asteburu horretarako iragarritako *Zaldi Urdina* antzezlanaren emankizuna eta Emakumeen Master Cup txapelketa. Dena gelditzen hasi zen. Ez hori bakarrik. Apirilaren 5erako deituta zeuden Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak ere uztailearen 12ra atzeratu zituzten.

ALARMA EGOERA


Konfinatu aurreko lehen neurriak izan ziren. Izan ere, martxoaren 14an, alarma egoera ezarri zuten Espainiako Gobernuak. Hamabost egunerako hasieran, baina Kongresuaren onespenerekin, luzatu zuten 40 bat egunez. Datuek agerian utzi zuten egoera larria zela. Osasun sistema ez kolapsatzea jarri zuten helburutzat agintariek, eta lan-baldintza prekarioetan ari zirela ohartarazi zuten osasungintza publikoko langileek. Eskularruak, musukoak eta kareta egiteko maskarak biltzeko deia ere egin zuten eta erantzuna izugarria izan zen. Telazko maskarak egiten hasi ziren herriko artisauek eta osasungintzako langileak babesteko materiala sortzen hasi ziren IMHn eta Mekan, esaterako.

Alarma egoera ezarrita, etxean konfinatzera derrigortu gintuen Espainiako Gobernuak. Itxi zituzten udal zerbitzuak, oinarritzko produktuak saltzen dituzten dendak ez beste guztiak, eta zahar egoitzak ere bai bisitarienentzat, eta debekatu zituzten kultur, kirol eta aisialdi ekintzak. Arau zorrotzak ezarri zituzten, eta salbuespen kasuak zehaztu zituzten etxetik irteteko: janaria erosteko, lanera joateko,



Martxoaren 14an, alarma egoera ezarri zuten Espainiako Gobernuak. Hamabost egunerako hasieran, baina luzatu zuten 40 bat egunez

adinekoak, adingabeak edo mende-koak direnak zaintzeko, bankura edo finantza etxera joateko, osasun etxera joateko, odola emateko, arazo larriren batengatik, edota zaborra jaisteko edota maskota pasiatzeko. Etxean itxita egin genituen 40 bat egun osasun publikoa zaintzeko ezinbestekoa zelako, baina ekonomiari eutsi beharrak tenkatu zuten soka orduan ere. Ez zen erraza oreka topatzea. Lanera joateko derrigor irten behar izan ziren batzuk etxetik, baina ikaste-iteak eta adinekoen egoitzak itxita zeuden eta horrek ageri-agerian utzi zuten zaintzaren arazoa. Etxetik lan egiteko aukera zutenetako askok ere ez zuten errazik izan. Telelana kontziliaziorako neurritzat hartu izan zen ordura arte hainbatetan, baina pandemiako lehenengo hilabeteetan auzitan jarri zen. Garbi ikusi zen denbora norbere kabuz antolatzeak autonomia handia ematen duela, baina etxean aritzeak deskonektatzea zailtzen duela eta etxeko lanetan eta zaintza lanetan zama gehigarria zekarrela. Itxialdian egindako ikerketek erakutsi zuten zaintzaren zama gehigarria emakumeen gain erori zela, eta egoera horretan, telelana ez zitzaiela lagungarri izan. Bistakoa zen: zaintza eta tipo hartako "telelana" ezin ziren uztartu. Ez zegoen erregulazio espezifikorik, eta enpresek eta langileek ia dena inprobisatu behar izan zuten. Telelana hobetsi zuten Gobernuak, baina ekainera arte ez zen Espainiako Gobernuak telelanaren inguruko araua prestatzen hasi. [Ekainean jarri zuten testua kontsulta publikorako, ekarpenak jasotzeko. Oreka bilatu nahi zuten, ez zitezkeen kaltetu enpresen produktibitatea eta telelanean ari ziren langileen eskubideak].

Osasun zentroetan ere egokitzapenak egin zituzten. Anbulatorioak itxi egin zituzten eta Etengabeko Arreta Gunea (urgentziak, 17:00etatik atzerakoak) itxi zuten Elgoibarren. Telefono bidez hasi ziren kontsultak pasatzen, eta gaur, oraindik, triajea telefono bidez egiten dute medikuek, nahiz orain, aurrez aurreko kontsultetara itzulita dauden. Martxoan, baina, beste bat zen egoera. Medi-



Gaitzaren bilakaera Mendaron.



kuek eurek ohartarazi zuten egoeraren larriaz. Ekonomia guztia eten behar zela eta momentuan etxean egotea eta itxuraz ezer ez egitea asko egitea zela nabarmendu zuten. Hala ohartarazi zuten Donostiako Zainketa Intentsiboetako mediku Felix Zubiak agerkari honetan bertan. Eta iritsi zen hori ere. Martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartean oinarritzkoak ez ziren lan guztiak eteteko agindua eman zuen Madrilgo gobernuak. Hala ere, arauak berak bazekarren zirrikitua, enpresa batzuek gutxieneko jarduera bati eusteko baimena izan zezaten. Osasun Sailetik behin eta berriz errepikatzen zituzten urrezko arauak: eskuak eta gainazalak sarri eta ondo garbitu behar genituen, metro eta erdiko distantzia gorde batzuk besteengandik eta maskara erabili tarte hori gorde ezin zenetan. Neurri horietan ez ezik, aerosoletan ere jarri zuten zientzialari banaka batzuek arreta, baina kutsatze bide horren inguruan gerora hitz egin da gehiago. Hain justu ere, hori izan zen gerora maskara derrigor erabiltzea agintzearen arrazoietako bat.

EMOZIOEN ZAINTZA

Eguneroko datuak emateari ekin zioten Osasun Sailetik, eta eguerdiro datuen zain izaten gara geroztik. Pandemiaren egoera neurtzeko aldagaiak zeintzuk ziren ere zehaztu zuten, eta gaur ere indikatzaile horiei adi jarraitzen dugu: detektatzen diren kasu positibo berriak, egunero egiten diren testetan positiboen portzentajea zenbatekoa den, egunero ospitaleratu behar izaten duten gaixoen kopurua eta zainketa intentsiboetako unitateen betetze maila. Konfinamendua zen ustez birusari hegoak mozteko neurririk eraginkorra (eta izan zen datuei erreparatu gero), baina itxialdiak eragin zitzaizkeen kalteei ere erreparatzeko eskatu zuten psikologo eta mediku ugari. Egoera emozionalak immunitate-sisteman eragin zuzena zuela azpimarratu zuten. Umeen egoeran jarri zuten bereziki arreta batzuek eta txalo egitera nahiz lapikoak astintzera ere deitu zuten itxialdian, umeei kalera irteteko baimena emateko eskatzeko [apirilaren 26an eman zien Espainiako Gobernuak umeei kalera irteteko baimena. Hasieran, esan zuten gurasoekin erostetako egitera, botikara edo banketxera joateko baimena izango zutela bakarrik 14 urtez azpikoek, baina erabaki hark hautsak harrotu zituen, eta sortutako kritiken ondorioz Gobernuak atzera egin zuen bere erabakian, eta ordubeteko ibilaldiak egiteko aukera eman zien].

Adinekoengana zuzendu zuten fokua beste zenbaitek; edo adinekoengana ere bai. Udaletatik bakarrik bizi ziren adinekoek laguntzeko telefono zenbakiak jarri zituzten martxan. Era berean, *Guztion artean* boluntario sarea ere jarri zuten lanean erakunde publikoek, Gurutze Gorriak, Caritasek eta Nagusilaneak. Sare ho-

*Indarkeria matxistaren
biktima zirenetako asko
etxean erasotzailearekin itxita zeudela
ohartarazi zuten
erakunde feministetatik*



rren bitartez Elgoibarko hamasei familiak (26 heldu eta 4 ume) jaso zuten laguntza. Familia horiei zerbitzu ezberdinak eskaini zizkieten: bakardade egoeran zeuden adinekoei telefono bidezko laguntasuna eman zieten, erosketak egin eta etxera eramateko zerbitzua eskaini zieten, zaborra jaitsi, anbulatorioko paperak etxetara gerturatu, botikak eraman zizkieten, Mendaroko ospitalera ingresatutakoei beharrezko zenbait gauza eraman, e.a.

Erakunde feministetatik ere alerta deia egin zuten itxialdiaren erdi aldera. Indarkeria matxistaren biktima zirenetako asko etxean erasotzailearekin itxita zeudela ohartarazi zuten, eta datuak ere zabaldu zituzten gerora egoeraren larria irudikatzeko. Konfinamenduak iraun bitartean, % 36 egin zuten behera Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian indarkeria matxisten salaketek: 222tik 142ra. Datuok azalpen batekin lagunduta eman zituen Emakundek. Hala ohartarazi zuten bizirik irauteko erresistentzia-estrategiak jarri behar izan zituztela martxan emakumeek. Egoeraren larriaren jakitun, biktimei telefono bidezko arreta emateko zerbitzuak indartu zituzten Elgoibarko eta Mendaroko udalek, bai eta Emakundek berak ere. Emakundetik zabaldu zuten konfinamendu garaian telefono dei gehiago jaso zituztela arretarako telefonoan iaz sasoi berean baino [iaz, martxotik maiatzera 685 dei jaso zituzten, eta aurten, 757]. Bestalde, *Maskara 19* ekimena abiatu zuten Hego Euskal Herriko farmaziek, emakumeren batek laguntza behar izanez gero, botikara joan eta 'maskara 19' hitza esate hutsarekin, botikariek tratu txarretarako protokoloa abia zezaten.

Itxialdiak iraun zuten denboran, etxean kirola egiteko aparatuak komuneko papera eta gozo gauzak prestatzeko oinarritzko osagaiak agortu ziren dendetan eta ekimen politikak sortu ziren bazterretan. Izan zen iluntzero musika jarri zuenik auzoak entretentitzeko, edota instrumentuak hartuta leihora irten zenik ere. Mendaroko Bizi Poza txarangako hiru kidek [Eduarne Olazabalek, Xeber Loiolak eta Josu Motrikok], esaterako, egunean kantu bat jo zuten konfinamenduak iraun zuten bitartean, nork bere etxetik, eta gogotik eskertu zieten auzoek, bereziki itxialdia amaitu biharamunean gainerako txarangakideekin batera eman zuten saioan. Elgoibarren, ere egunero kantu bat jarri zuten udaltzainek bozgorailuetatik.

Kultura egarria handitu egin zen konfinamenduan, baina ez ziren proportzio berean hazi kulturgileentzako laguntzak. "Eskatu zaigu populua entretentitzea, eta eskatu zaigu, sarri, fabore bat

Apirilaren 28an zehaztu zuten Pedro Sanchez Espainiako presidentek konfinamendutik irteteko bide-orria, lau fase banatzen zituen plana

egingo baligute bezala", esan zuten Uxue Alberdik aldikari honetan, 'Dendaostekoak' liburuaren aurkezpenaren harira egindako elkarrizketan, eta antzeko hitzak izan zituen Iban Urizar Amorrantek ere. "Esparru guztiak erreskatatzeko planak egiten dabilta

agintariak, kulturarena salbu, eta aldiz, normaltasuna ematea eskatzen digute sortzaileoi". Kultura ez zuten oinarritzko gauzen artean sartu agintariek, eta koronabirusaren hedapenari aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz, Euskal Herriko kulturgintza egoera larrian zegoela ohartarazi zuten ehunka kulturgilek. Hala, apirilaren 21ean eta 22an greba digitala egiteko deia zabaldu zuten 550 kulturgile baino gehiagok. Bi egun osoz ez zuten Interneten kultur edukirik partekatu eta sektorearentzako neurri espezifikoak hartzeko eskatu zieten erakunde publikoei. [Maiatzean iritsi ziren neurriok. Jaurlaritzak laguntza partida espezifiko bat aurkeztu zuten kulturarentzat. Guztira, 2,5 milioi euroko poltsa jarri zuten itxialdiak kulturgileengan eragindako kalte ekonomikoa arintzeko. Eta beste bi milioi euroko diru sail bat gorde zuten sektoreko enpresa txikientzat. Eragileek begi onez hartu zuten oro har laguntza



programa, baina kexak ere izan ziren, batez ere, baldintzei eta adjudikazio prozesuari lotutakoak].

Hala iritsi ginen apirilera. Ordu-rako dena edo ia dena zegoen geldi, eta Realak eta Atheticek apirilaren 18an jokatzekoa zuten Espainiako Errege Kopako finala ere bertan behera gelditu zen. Balkoietan jokatu zuten finala ehunka realzale eta athleticzalek.

Luze zihoan itxialdia, baina iritsi zen apirilaren 28a eta konfinamendutik irteteko bide-orrria aurkeztu zuen Pedro Sanchez Espainiako presidentek. Plana maiatzaren 4an abiatu zen, ekainaren amaiera aldera arte luzatu zen eta lau fase izan zituen. Deseskalatzalea amaitu bitartean mugikortasuna probintzietara mugatu zuen Madrilgo gobernua eta aurreratu zuten babes neurriak eta urruntze soziala derrigor zaindu beharko zirela ekainetik aurrera ere, harik eta gaitzari erremedio terapeutikoa edo birusaren kontrako txertoa aurkitu arte.

EZER EZ DA BERDIN

Maiatzean ekin genion konfinamendutik irteteari. Oinarrizkoak ez ziren komertzioak zabaldu zituzten eta aurrez zita hartuta erosketak egiteko bidea zabaldu zuten herriko dendetan. Ostalariei ere eman zieten lanean hasteko aukera, baina fokuak haien gainean iraun zuen luzaroan. Mendaroko Udalak 80.000 euro agindu zituen herriko merkataritza eta ostalariei laguntzeko lehenengo fase batean (abenduan abiatu zuten bigarren fasea) eta Elgoibarko Udalak 540.000 euro baino gehiagoko laguntza aurreikusitako, herriko zerbitzuak, ostalaritza eta merkataritza suspertzeko. 2021erako, berriz, beste 375.000 eurotik gora agindu zituen alarma egoerak kaltetutako herritar eta enpresa txikiei laguntzeko. Bonu-kanpainak ere hasi zituzten bi udalerriotan, gertuko komertzio eta zerbitzuei laguntzeko.


Estu hartua gintuen soka askatu zuten apur bat udarako. Ekainaren 15ean hasi zuten, esaterako, Mintxetako igerilekuko denboraldia, COVID-19 egoerara moldatuta

BIGARREN FASETIK HIRUGARRENERA

Probintziara mugatu zuten mugikortasuna eta maiatzaren 21ean maskararen erabilera derrigortu zuten bi metroko distantzia gorde ezin zen eremu guztietan. Maiatzaren 25ean, berriz, konfinamendua leuntzeko bigarren fasera pasatu ginen, Hego Euskal Herri osoan. Datuen bilakaera ona zela eta birusaren hedapena geldiaraztea lortzen ari zela zabaldu zuen Salvador Illa Osasun ministroak, eta horrenbestez, koska bat malgutu zituzten alarma egoeratik murriztuta zeuden zenbait neurri. Ekainaren 8ra arte izan ginen bigarren fasean eta egun horretan sartu ginen hirugarrenengoan. Hirugarren fasean kendu zituzten kalera irteteko ordutegiak, baina probintzietatik irteteko debekuari eutsi zioten. Bestalde, gauetz zabalitzen ziren tabernetik itxita jarraitu zuten, bai eta diskotekek ere. Hala ere, aldaketak ezarri zituzten tabernen eta jatetxeen edukieran. Hirugarren fase horretan taberna eta jatetxetako edukieraren erdia bete ahal zela zehaztu zuen Madrilgo gobernua eta terrazaren %75 [Jaurlaritzak zehaztu zuen gero taberna eta jatetxetan ez zela gehieneko bezero kopururik ezarriko, baina bi metroko aldeari eutsi egin beharko ziotela mahaien artean]. Gainera, taberna barruko barran kontsumitzea baimendu zuten, baina bezeroen edo bezero multzoen artean bi metroko segurtasun distantzia utzita. Saltoki guztiei eman zieten zabalitzeko baimena, haien tamaina edozein zela ere, baina Jaurlaritzak zehaztu zuen denda eta saltoki handietan ezingo zutela gainditu %60eko edukiera. Hala ere, ez zuten denda ezingo zuten gainditu %50eko edukiera.

Estu hartua gintuen soka nasaitu zuten beste apur bat. Ekainaren 8an eman zuten zaharren egoitzetara bisitak egiteko baimena, eta uda usaina hartzen ere hasi ginen. Elgoibarren, esaterako, ekainaren 15ean hasi zuten Mintxetako igerilekuko denboraldia, COVID egoerara moldatuta jakina, eta kultur aretoak erabiltzeko arauak ere egokitu zituzten Elgoibarren eta Mendaron,





Jaurlaritzaren azkeneko protokoloetara egokituta [Zinema aretoek, antzokiek, auditoriumek eta zirkuek ere edukiaren erdia ezarri zieten]. Museoei eta liburutegiei ere baimendu zieten zabaltzea hirugarren fasean [ekainaren 1ean zabaldu zituzten liburutegiak gurean] eta kultur jarduerak antolatzeko aukera ere eman zieten, edukierak zainduta. Kirolean, goi mailako kirolariei bakarrik baimendu zieten entrenatzea. Eta azkeneko kontu bat. Jaurlaritzak hala egiteko eskatua bazion ere, Espainiako Gobernuak ez zuen laga Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko mugetatik kanpora libre ibiltzen.

Bistan zen egiten zela egiten zela, ezer ez zela pandemia iritsi aurreko baldintzetan egingo, eta beste gauza asko ezingo zirela egin. Trinitate jaiak, Nahaste Borraste, Folklore jaialdia, Santanak, udako kirol campusa, sanbartolomeak, ... bertan behera utzi zituzten antolatzaileek. Turismoarentzat, berriz, arnasaldi halako bat iritsi zen, turistentzako jolas parkeak, parke zoologikoak eta abarrek zabaltzeko aukera eman zutelako, edukieraren erdiarekin. Barruan luze egotetik gendozen, eta behar halako bat bageneukan udaz elkarrekin gozatzeko. Zer esanik ez umeez eta gazteek: elkarrekintza behar zuten eta hala ohartarazi zuten adituek. Haurrek eta gazteek behar zutela mugimendua, behar zutela naturarekin eta kideekin harremantzea, eta behar zutela kide sentitzea osasuntsu hazteko. Horrez gain, familia askotan ezinbestekoak zituzten udalekuak kontziliaziorako ere. Horregatik, udalekuen inguruan zer esango zain egon zirenak ez ziren gutxi izan. Lehen zertzelada batzuk eman zituen Jaurlaritzak udalekuen inguruan hirugarren fasean sartzeaz batera, eta horrek bidea eman zion Atxuiamaikari urteroko udako eskaintza prestatzeko, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Marra gorri asko zeuden, baina, eta ez zen erraza izan antolaketa. HH5etik LH6rako umeentzat mugatu zuten eskaintza ezinbestean. Talde txikitik jardun ziren haurrak jolasean, beti hezitzaile berarekin. Hala hasi zuten uda umeez udaleku irekietan, pozik, baina ez ziren luze iraun pozak. Izan ere, uztailearen 18an udalekuak bertan behera laga zituen Jaurlaritzak.

UDAN, ATZERAKA

Iritsi zen uda, kasuak ugaritzen hasi ziren hainbat udalerrian eta agerraldi berriek bigarren fasera itzularazi zituzten hainbat herritako tabernak. Ordizian, esaterako. Hantxe egin zuten



estreinako baheketa masiboa ere, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin baino astebete aurretik. Pandemia betean egin ziren hauteskundeak uztailearen 12an eta eman zuen zeresanik horrek. EAjk irabazi zituen hauteskundeak. Hiru lurraldeetan gailendu ziren jeltzaleak, bototan behera egin arren (Elgoibarren eta Mendaron ere bai) eta EHBildu izan zen bigarren alderdi bozkatuena. Ordura arteko markarik onena lortu zuten abertzaleek, 75 aulkitatik 53 bete zituztelako, eta abstentzioak markatu zituzten hauteskundeak. Izan ere, botoa ematera deituta zeuden herritarren %52,8k eman zuten botoa (2016an baino zazpi puntu apalagoa izan zen parte-hartzea).

Egoera epidemiologikoa ez zen ona, bistakoa zen, eta neurriak murriztera egin zuten agintariek. Uztailearen 15ean, kalean ere maskara erabiltzeko derrigorra ezarri zuten [Ordura arte, leku itxietan, garrario publikoan eta distantziak gorde ezin ziren lekuetan erabili beharra zegoen], eta hil azkenera ostalaritza 1:30ean ixtea agindu zuten, gaueko giroarekin lotuta kasu positibo asko atzeman zituztelako. Zarautzen lekutu zuten fokuetako bat. Unibertsitatera sartzeko proba egin ostean, bi asteburuz, saldoka joan ziren gazteak Zarautzera, asko eta asko gure eskualdetik, eta horren eragina astebete ingurura hasi ginen igartzen hemen. Taberna banaka batzuek ere itxi zuten Elgoibarren, badaezpadako neurri gisa; zahar egoitza eta eguneko zentroetan ere eragin zuen, eta gazteengan jarri ziren begi denak eta gehiago. Ez zuten haiek ondo hartu. Gazteak kriminalizatu nahia ikusi zuten Gaztelekuko erabiltzaileek. Nolanahi ere, PCR proben emaitzek garbi erakutsi zuten asko ugaritu zirela kasuak gazteen artean Debabarrenean.

Hala joan zen uda gurean, oraintxe bi, oraintxe lau, oraintxe sei kasu. Uztailean 23 kasu atzeman zituzten Elgoibarren, eta abuztuan, 94 (Mendaron, bost). Egoera horretan mobilizazioak ere izan ziren gure bi udalerrietan, pentsiodunen mugimendua deituta. Zahar etxeetako eta eguneko zentroetako egoiliarak bizitzen ari ziren bakartzea pertsona helduen kontrako «atentatua» zela zabaldu zuten, eta aldi berean, ambulatorioetan izandako

Udarako malgutu zituzten koska bat neurriak, baina irailerako gora egiten hasiak ziren berriro kasuak eta beste estutze bat ekarri zuen horrek

murrizketak ere salatu zituzten, esanez zaugarriak zaugarriago bihurtu zituela pandemiaren agintariek egindako kudeaketak. Lehen arretako profesionalak ere mobilizatu ziren, baita gure eskualdean ere. COVID-19ak lehen arretako zentroen estuasunak



teko baimena. Eta ildo beretik joan zen azaroa ere, estutuz eta estutuz. Azaroaren 7an ostalaritza itxi eta etxeratze agindua 22:00etara aurreratu zuen Jaurlaritzak (Etxerako jatekoa prestatzeko baimena bakarrik eman zieten ostalaritzako establezimenduei). Aipaturikoez gainera, dendei 21:00etarako ixtea agindu zieten, farmaziei eta gasolindegiei izan ezik, eta kultur ekitaldiak 21:00etarako bukatzeko agindua eman zuten. Bilakaera epidemiologikoa ez zen ona inondik inora. Datu bat: Bigarren olatuan zenbatu ziren kasu gehien Elgoibarren, eta hamazazpi kasu positibo pilatu ziren kasu gehien antzeman ziren bi egunetan: azaroaren 9an eta 12an.

BONO KANPAINAK

Egoera horretan, ostalaritza itxita, dendak estututa eta animoak apalduta zeudela, bono kanpaina berriak jarri zituzten martxan Elgoibarko eta Mendaroko udalek, zerga batzuk ere arindu zizkieten eta Mendaroko kasuan diru-laguntza zuzenak ere agindu zizkieten lanik egin ezinda egon ziren ostalariei, 1.000na eurokoak; enpresa txikiei eta autonomoei laguntzeko aholkularitza-zerbitzua jarri zuen martxan Debegesak eta etxeko zerbitzua ematen hasiak ziren ostalarien zerrenda kaleratu zuen BARRENEK. Hilabete pasatxo egon ziren taberna eta jatxetxeak itxita, eta ostalarien egonezina haserrean

Gabonetarako neurriak malgutu dituzte agintariek, baina aldi berean, zuhurtziaz jokatzeko eskatu dute, lasaitzeko arrazoirik ez dagoela-eta

Elgoibarko ostalarien sektoreak, auto karabana batek lagunduta.


Hala ere, tabernak itxi arren, kasuek gora egiten jarraitu zuten Elgoibarren abendua bitartean. Gorabehera txikiren bat izan zen, baina abendu hasiera arte ez zen joera beheranzko argirik ikusi. Azaro azkenaldera piztu ziren pizteko zeuden alarmak. Ehun mila biztanleko 509,28ko intzidentzia-tasa zuela, baheketa selektiboa egin zuten Elgoibarren [Gipuzkoako intzidentzia-tasa 477an zegoen une horretan, eta Debabarrenean 608an]. 13 eta 40 urte bitarterakoak deitu zituzten PCR probak egitera, ambulatorkoak eta 1.170 lagunek egin zuten proba, deituta zeudenen %37k. Astebetara jakinarazi zituen emaitzak Osasun Sailak. Elgoibarren eta



bilakatu zen. Elkarretaratzeak egin zituzten Elgoibarren eta Mendaroko ostalariei babesa agertzeko eta haietazko laguntzak eskatzeko, eta mobilizatu ziren ostalariak eurak ere. Azaroaren 13an, esaterako, Maa-lan hasi eta Kalegoen plazara arteko manifestazioa egin zuen

Soraluzen egin zituzten baheketen emaitzak batera eman zituzten Ignacio Garitanok, Osakidetza pandemiaren kontrola eta jarraipena egiteko duen koordinatzaileak. Bi herrietan 1.521 lagunek egin zituzten PCR probak eta zortzi kasu positibo atzeman zituzten guztira; hau da, %0,53k eman zuten positibo.

Abenduarekin batera hasi



zen behera egiten kurba gurean, eta horrek Gabonen usainean hasita zeudenengan lasaitze bat ekarri zezakeela jakinda, zuhurtzarako deia egin zuten zientzialariek, bai eta agintariek ere. Gordin hitz egin zuen Ana Galarraga Elhuyarreko zientzia komunikatzaileak agerkari honetan. Galarragak ohartarazi zuen birusa luzez izango genuela gure



artean eta hau ez zuela txerto batek konponduko. Gabonez hitz egiteko aukerarik ere ez zuen galdu. Aurtengo Eguberriak ezin izango genituela ohi bezala ospatu aurreratu zigun Galarragak eta haserre agertu zen instituzioetatik zabalduetako mezuarekin: "Gabonetara egoera hobean iritsi ahal izateko neurriak hartzea ezinbestekoa dela zabaldu dute agintariek eta kontraesana ez ezik, arrisksua ere bada mezu hori".

Beste gairik ez zen, baina, bazterretan: Eguberriak. Gabonetan neurriak arintzeak arriskua besterik ekarriko ez zuela uste zutenak zeuden batetik, tartean osasun munduko profesional asko, eta bestetik, Eguberrietarako arintze bat eskatzen zutenak. Baina bai batzuek eta bai besteek arintze hori etorriko zela usaintzen zuten, besteak beste pandemian argi ikusi delako osasuna sistema ekonomikoaren menpe egon dela sarri, eta Gabonek pisu handia dutela gurean. Abenduaren 2an mintzatu zen Espainiako Osasun ministroa estreinakoz, serio, Eguberrien inguruan. Salvador Illa ministroak aurreratu zuten abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra erkidego batetik bestera joan ahal izango ginela, baina soilik familiakoak eta gertu-gertukoak bisitatzeke. Era berean, Eguberrietako familia otorduetan gehienez hamar lagun elkartzeko gomendioa egin zuen eta bi bizikidetzata talde baino gehiago ez elkartzekoa. Etxeratzeke orduan ere aldaketak izango zirela aurreratu zuen Urtezahar gauerako eta Gabon gauerako, eta bi egun horietan beranduenez 01:30ean etxeratu beharko zela. Jaurlaritzak abenduaren 9an esan zuenaren aurrerapen bat izan zen, autonomia erkidegoen babesarekin agertu zelako Illa prentsa aurrera egun horretan. Jaurlaritzak, esan bezala, abenduaren 9an jakinarazi zituen Gipuzkoa, Araba eta Bizkairako hartutako neurriak, Labi Babes Zibileko Planaren aholku kontseiluak egindako bileraren ostean. Iñigo Urkullu lehendakaria agertu zen egun horretan prentsaren aurrera, serio. Pandemiaren bilakaerak hobera egin zuen arren,

"osasun-larrialdian jarraitzen" genuela nabarmendu zuen Urkulluk, eta ospitaleetako presioak ez duela erlaxaziorik onartzen gaineratu. Hamar puntura ekarri zituen lehendakariak abenduaren 12an indarrean jarri zituzten neurri eta gomendioak

Urriaren 26tik eta azaroaren 6tik indarrean zeuden neurriak malgutu egin zituztela jakinarazi

zuen Urkulluk, baina abenduaren 2an, Espainiako Gobernuak erkidegoekin adostutako neurrietako batzuk gogortu egin zituen [urtarrilaren 11ra arte egongo dira indarrean neurri hauek guztiak, oker handirik ezean]: EAEtik irten edo bertara joan ahal izango da abenduaren 23tik 26ra eta abenduaren 30etik urtarrilaren 2ra eta ez abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra, Espainiako Gobernuak esan zuen bezala. Arinduko diren neurrietan, aipatzekoa da udalerrietatik irteteko debekua kendu duela Jaurlaritzak, eta probintziara zabaldu mugitzeko muga. Bestetik, ostalaritzak atek zabaldu ahal izan ditu 100.000 biztanleko 500 kasu positibotik behera duten herrietan. Terrazak nahiz barruak ere zabaldu dituzte. Zutik kontsumitzea, baina, debekatuta dago tabernetan. Taberneak 20:00etan itxi beharko dute, nolahi ere. Bestetik, intentsitate handiko ariketa fisikoa egitean maskara kendu ahal izango da.


Gainerakoan, adostutako neurriei eutsi egin zien Jaurlaritzak abenduaren 9an. Beraz, abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean gehienez hamar lagun bildu ahal izango gara. Zehaztapen bat egin zuen lehendakariak: «Iradokitzen da, batetik, hamar pertsona horiek bi bizikidetzata unitatekoak izatea eta, bestetik, berdinak izatea ospakizun desberdinetan». Abenduaren 24an eta 31n, etxeratzeke agindua 01:30era luzatuko da, eta gainerako egunetan 22:00ak aurretik etxeratu beharko gara. Era berean, pertsona asko batzen diren ekitaldiak antolatzea debekatuta dago: Olentzero eta Mari Dominginen kalejirak, Gabon gaueko eta Errege bezperako kantu-kalejirak, santomasak, abenduaren 31ko herri lasterketak, Errege Magoen desfileak... Ezer ez da berdina izango aurtengo Gabonetan, 2020 osoan ezer ez delako izan berdina; edo bai, esango du beste batek. Aldi berean, dena izan delako berdina 2020an, koronabirusaren ukitua izan delako egin edo bizi izan dugun guztiak.

**Abenduaren 24an ez dugu plazan elkartzetik izango,
baina, hala ere, gertu sentituko zaituztegu.
Eskerrik asko urte guzti hauetan emandako babes eta beroagatik.**

Zorionak, eta urte berriak dakarkiola osasuna euskarari.



ELGOIBARKO IZARRA
Euskaltzaleon Topagunea



Alba Dorreaga Pico (DBH-2C)

Eguberri on!

Olentzero musukoarekin

Aurtengo Gabonetan
COVID-a tarteko
badira zailtasunak
familia batzeko
baina sei bada ere
batu ospatzeko
ta kendu maskarila
turroia jateko

Badakigu aurten hau
tokatu zaiguna
halere ez dezagun
gal alaitasuna
ta Olentzerorentzat
dut eskakizuna
aurtengo oparia
nahi det osasuna

Doinuak: Markesaren alaba

Egilea: June Arrizabalaga Urra (DBH-1C)

2020 Elgoibar BHI



Urte berri on!
Mendaro Ikastola
osatzen dugunon
partez



2020 2021



**ASESORIA
GOAR**

**KONTABILITATEA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASESORIA LABORALA**

San Bartolome, 2 beheak - Elgoibar Tel: 943 742 674 / 943 740 234
asesoria@asesoriagoar.com Faxa: 943 742 129



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

ZA
ZURE ALDE S.L.

Nerea Olea Lequerica
Abokatua

Zibil-Jabetza horizontala
Komunitateen kudeaketa

Jausoro plaza, 3 - behea
Elgoibar
943 531 351 / 685 708 606

zurealde.elgoibar@gmail.com

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

Floren Cid: 647 463 436
E-posta: ibamariturgintza@gmail.com

Gabon zoriontsuak!

- BEROGAILUA
- GASA
- GASOLA
- AIRE DUNTUA
- ALTZARIAK
- MANTARAK
- OSAGAIK
- GRENBIEN KORDAZIOA
- ERREFORMAK



Esan
Komunikazioa

Komunikazioa eta Marketina

615 787 118
esankomunikazioa@gmail.com
www.esankomunikazioa.net

Enpresetarako Software-an
espezializatuak



Softlan S.L.

Albitxuri industriagunea, 3i
20870 Elgoibar - Gipuzkoa
943 748 105

www.softlan.biz - www.softlan.eus
info@softlan.biz

Jai zoriontsuak eta 2021 urte emankorra!



ILSko langileen partetik...

*Zorionak eta
urte berri on!*



► GEMMA MONREAL MARGOLARIA

“Urteko egun guztietan margotzen dut zerbait; zirriborroren bat bada ere”

Hiru bat urte pasatu dira Gemma Monreal margolariak azken erakusketa egin zuenetik, eta, epealdi horretan margotu dituen lanak erakutsiko ditu orain. Gaur arratsaldean inauguratuko du bere azken margolan erakusketa. Garai zailak dira kultura eta artearentzat, eta hori dela-eta, herritarrei Gabonetan zehar kalera irteteko aitzaki bat eman nahi die erakusketa honekin. Koronabirusaren kontrako neurri guztiak hartuta antolatu du erakusketa, herritarrek lasai joan daitezten. 33 koadro jarriko ditu ikusgai, gehienak azken bi-hiru urteetan eginikoak, eta horietako asko konfinamenduan bertan margotutakoak. Koadro handienak bi metrotik gorako neurria izango du, eta txikiena sei zentimetrokoa izango da. Aldaketa bat igarriko du ikusleak margolan hauetan, kolore eta argiari dagokionez. Abenduaren 30era arte egongo da ikusgai erakusketa, Kultur Etxean.

- AIINHOA ANDONEGI -

◆ Koronabirusaren pandemiaren erdian dator zure erakusketa. Zer aurreikusten duzu?

Baikor eta ilusioz beterik nago. Badakit garai zailak bizi ditugula, baina ilusioa ezin dugu galdu. Nire lehenengo erakusketak izango balira bezala bizi ditut erakusketa guztiak. Egia da zalan-tzak izan nituela, baina uste dut gauzak antolatu behar direla. Herritarrei eman nahi nien kalera irteteko aitzaki bat. Zinera joaten diren moduan, koadroak ikustera etorri daitezke. 20 laguneko muga dauka aretoak eta ondo zainduko ditugu neurri guztiak.

◆ Erakusketa berria inauguratuko duzu gaur. Zer ikusiko dugu bertan?

Koadro zaharrak gutxi jarriko ditut; gehienak berriak izango dira. Azken bi urteak oso aberatsak izan dira sormenari dagokionez, eta koadro asko sortu ditut. Konfinamenduan ere, ez nuen atsedenik hartu. Estudioko material guztia etxera eraman nuen eta hamabost margolan egin nituen. Aspertu egingo nintzela pentsatu nuen etxealdia agindu zutenean, baina niretzat izugarria izan zen.

◆ Eta, nolako koadroak irten zitzaizkizun itxialdi horretan?

Harrizkoa da, baina ez dira koadro tristeak. Kaleak hutsik zeuden, establezimenduak itxita, jendea goibel eta egoerak bazirudien ez zuela asko laguntzen, baina koadro oso argitsuak irten zitzaizkidan. Azken bi urteotan kolore biziak erabiltzen ari naiz gehiago, eta argi mota berriak probatzen ibili naiz. Jendeak igarriko du aldaketa nire koadroetan.

◆ Zer margotu duzu azken koadroetan?

Maroko, Andaluzia edota Nepaleko paisaiak margotu ditut; txabolak, etxeak, kalekak, mendiak, basoak... argi magikoak bilatu ditut. Itsasoko lan batzuk ere egin ditut, eta baita elurtutako pai-

saiaren bat ere bai. Erakusketa iragartzeko erabili dudan irudia Nepaleko paisaia bat da. Nire ametsa da Nepal ezagutzea. Gustatuko litzaidake hango lasaitasun eta bakardade magikoan hilabete bat pasatzea. Askok gustatzen zait leku diferenteetako etxolak, etxeak edota kaleak marraztea. Haiei begiratzen dienean saiatzen naiz imaginatzen han barruan bizi izan direnen istorioak: barreak, negarrak, gosea, tristura, alaitasuna... Istorio horietan oinarritzen naiz koadroa margotzeko.

◆ Nondik ateratzen dituzu koadroetan jasotzen dituzun paisaiak?

Gehienak kopiatu egiten ditut liburuetatik edo aldizkarietatik, baina asmatu ere egiten ditut asko. Memoria fotografiko ona daukat eta intereseko zerbait ikusten dudanean memorian gordetzen dut. Askotan telebista ikusten nagoela agertzen da nire interesa pizten duen paisaiaren bat, eta berehala hartzen dut koadernoan lehenengo zirriborroa egiteko. Zirriborro pila bat pilatzen zaizkit, eta

denak ez ditut gero koadroetara eramaten, baina asko bai. Edozein momentutan etortzen zait inspirazioa eta garrantzitsua da une horietan sortzen diren irudiak zirriborroan bada ere jasotzea.

◆ Ikusleak aldaketa igarriko duela aurreratu duzu kolore eta argietan. Zein kolore erabili dituzu oraingoan?

Ni urre koloreko gama erabiltzearen oso zalea naiz, eta jarraitzen dut kolore horiek erabiltzen, baina argi gehiagorekin. Oraingoan, beste kolore batzuk ere sartu ditut, urdinak esaterako. Bi koadro oso berezi daude tono urdinetan, baina ez dira batere tristeak, ez dute tristurarik transmititzen. Tono berdeak ere erabili ditut, horiak... Argitasun handiko lanak dira gehienak. Bitxikeriaren bat jartzea ere gustatuko litzaidake erakusketa honetan. Nire

“Estudioko material guztia etxera eraman nuen konfinamenduan eta hamabost koadro sortu nituen”

ikasleetako bat itsasaldeko paisaia bat margotzen ari da tamaina handian, eta galdetu zidan ia hori txikian egiteko gai izango ote nintzen. Izugarri gustatzen zait ikasleei demostratzea dena dela posible, eta egin dut bere koadroa tamaina txikian. Nire ibilbide guztian margotu dudako koadrorik txikiena da. 6x4 zentimetroko koadroa da. Gustatuko litzaidake hori ere erakusketan jartzea.

♦ **Kolore eta argi berriak bilatzen aritu zara azken lanetan, baina teknika espatularena mantendu duzu?**

Bai, espatularena da niri gehien gustatzen zaidan teknika. Eskua martxan jartzen zait espatularekin eta geratu ezin moduko bat sentitzen dut. Zeruia margotzean, esaterako. Koadro handiak margotzen gozatzen dut gehien, libre sentitzen naiz koadro handiekin, mugarik gabe margotzeko aukera ematen dit. Marokoko Fez hiriko kale bateko koadro bat 2x1,5 metroko tamainan egin dut.

♦ **Koadroetan egilearen aldartea eta egoera pertsonala islatzen dira askotan. Nabaritu duzu argiago egon zarela koadro hauek margotzerakoan?**

Ez dakit, ba. Koronabirus madarikatu hau gurera iritsi zenean tristura handia sentitu nuen, gauza asko galtzen hasi ginelako eta horri kontra egiteko ahalegina egin nuen. Konfinamenduan jende guztia triste zebilen eta nik horri aurre egitea erabaki nuen. Bos-pasei ordu eskaintzen nizkion egunero margotzeari, eta izugarri

*“Zazpi urte daramatzat
eskolak ematen eta
esan dezaket
Elgoibarren margolari
harrobi ona dagoela”*


gozatu nuen. Ni ez nintzen aspertu etxealdian. Sukaldatzea ere izugarri gustatzen zait, eta ez nintzen geldirik egon. Denbora hegan pasatu zitzaidan, eta oparoa izan zen benetan itxialdia. Nire koadrorik tristeena ama gaixo zegoenean margotu nituen. Betiko koloreak erabili nituen arren, oso koadro tristeak irten zitzaizkidan, bonbardaketa bat egon izan balitz bezala irten zitzaizkidan etxe eta

kaleak. Urre koloreak erabili nituen, baina askoz grisagoak ikusten dira. Une hartan horrela sentitzen nintzen ni eta dudarik gabe, koadroetan egilearen aldartea islatzen da.

♦ **Eskolak ematen diharduzu orain. Gaztetxoaren artean ba al dago morgorako zaletasunik?**

Bai, sekulakoa. Zazpi urte daramatzat eskolak ematen eta esan dezaket Elgoibarren margolari harrobi ona dagoela. 42 ikasle ditut une honetan eta beste 30 inguru itxaron zerrendan. Ume eta gazteei ematen dizkiet eskolak, eta izugarri gozatzen dut beraiekin. Hemen ez dago burlarik edo aurpegi txarrik; ondo pasatzera etortzen dira, ikastera, gozatzerara. Oporrak iristen direnean esaten didate faltan botatzen dituztela nire klaseak eta horrek ilusio handia egiten dit. Nire ikasle batzuk nagusitu ahala Arte Ederrak ikastera joan dira, eta sekulako artelanak bidaltzen dizkirate tarteka. Oso pozik hartzen ditut beraien lanak. Konfinamenduan ere ia ikasle guztiak bidali zitzaizkidan euren artelanak, eta badakit margotzeak arindu ziela itxialdia, eta poztu ninduen horrek.

Arg.: Jairo Berbel





Arg.: Jairo Berbel

◆ Nola hasi zinen margotzen?

Gurasoek eta aiton-amonek kontatu zidatenez, 2-3 urte nituela hasi nintzen pintzelekin margotzen. Errosario kalean bizi nintzen, erreka aldera, eta ibaiako ura marrazten hasi nintzen. Nik uste dut margotzeko jaio nintzela, ume-umetatik barruan izan dut zaletasun hau. 8 bat urte genituela, kalean geratzen nintzen Lucianori begira margotzen ari zen bitartean. Nire lagunak sokasaltoan jolastera joaten ziren eta ni Lucianori begira. Ez zidan hitz bat bera ere esaten, oso serioa zen, baina niri berdin zitzaidan. Luxu bat iruditzen zitzaidan Luciano margotzen ikustea. Lau bat urtez jardun nuen hari begira, eta behin nire aitak esan zion Lucianori izugarri gustatzen zitzaidala margotzea. Zarauzko bere estudioa joateko gonbitea egin zigun eta niretzako sekulakoa izan zen. Magia egiten zuen gizon hark. Gogorra zen erakusten, oso zorrotza, eta beldur pixkat ere ematen zidan, baina pila bat ikasi nuen. 11 urterekin margotu nuen nire kuadroa berarekin eta gordeta daukat oraindik. Bezero batek erosi nahi izan zidan, baina ez nion saldu. 18 urterekin egin nuen nire lehenengo erakusketa. Garai hartan Kutxak erakusketa areto bat zeukan, eta zuzendariak esan zidan erakusketa bat egiteko han. Ordurako Gasteizen egina neukan beste erakusketa bat, baina herrian nire obrak erakusteak ikaratu egiten ninduen. Lucianok ere esan zidan bazela herriari nire lanak erakusteko ordua, eta animatu egin nintzen. Eta, eskerrak! Izugarria izan zen. Jende pila bat etorri zen eta koadroen %90 saldu nituen. Pozez zorrotzen joan nintzen etxera gurasoei kontatzera. Hala ere, esan nienean Arte Ederak ikasi nahi nituela, ezetz esan zidaten, margolariak gosez hiltzen zirela, eta Administrazioa ikaslera bidali ninduten. Administrazio lanetan hasi nintzen, eta ezkonberritan lanik

“11 urterekin margotu nuen nire lehenengo koadroa Lucianorekin eta gordeta daukat oraindik”

gabe geratu nintzen. Orduan esan zidan senarrak nire pasioari heltzeko. Margotzea gustuko banuen, huraxe zela serio hasteko momentua. Etxea hutsik geneukan, justuan genbiltzan, baina margoaren aldeko apustua egin nuen. Bihotzez eskertzen diot senarrari animatu izana. Ibilbide luzea egin dut, margoa da nire bizia, eta margotzeak egiten nau zoriontsu. Nire ametsa bete dudala esan dezaket. Estudio bat erosi eta nire txokoa edukitzea ere ametsaren parte zen, eta lortu dut. Lan handia egin behar izan dut, baina nire estudioa da nire babesgunea. Hemen ondo sentitzen naiz, pozik, lasai, gustura. Ez da erraza mundu honetan aurrera egitea, eta pandemiarekin are eta zailagoa da, eta nik lortu dut. Burugogorra izan naiz, eta aurrera egin dut. Urte batzuetan ondo saldu izan dut, baina garai zailak ere bizi izan ditut, eta materialak ez dira merkeak. Dena dela, nik nahiago dut arrautzak eta zopa jan, baina margotzean inbertitu ahal izatea. Ni bidaietan joaten naizenean ez naiz bitxi edo jantzi dendetan satzen, inprenta edo liburu dendetan sartzen naiz, material bila. Hau da nire mundua.

◆ Zer ematen dizu margotzeak?

Margotzea nire bizitza da. Ez da lana niretzat, beharra da. Eguneko egun guztietan margotzen dut zerbait, zirriborroren bat bada ere. Margotzen ez dudana egunean, hasi zaitezke kezkatzen. Haserre, pozik edo triste egon berdin da niretzat, trazuaren bat margotu behar dut egunero. Koadroak nire bizitza dira, nire parte bat. Nire umetxoak dira niretzat. Koadroekin hitz egiten dut askotan, errietan ere egiten diet zerbait iriteten ez zaidanean. Nik uste zahartzen naizenean, eskuetan dardara izan arren ere, margotzen jarraituko dudala. Margolari bat ez da inoiz jubilatzen.



Meka
Lanbide Eskola

**Etorkizuna eraikitzen
jarraitu dezagun elkarrekin**



**BIZI EZAZU
ABENTURA**
estreinaldia
urtarrilak 11 astelehena



GOKI



erreformak

gabon zoriontsuak!

Olaso pol, 15 - 68 pab
Tel. 943 74 42 23
ELGOIBAR

Irizar, 1 behea
Tel. 943 76 53 42
BERGARA

Errabal, 19 behea
Tel. 943 12 57 41
SORALUZE

www.gokierreformak.com



elgoibarko
herri eskola



Asko jakin ez: ¡No lo sabes bien! Ez dakik asko!
 —Bixar urtiak. Zorionak! —Bai, bixar. Eztakik asko! Berrogeta hamaika urte. Ja, ja, ja.

Jone Arriolak aurkeztutako telesail proiektua izan da Tabakaleraren 2deo sarietan hautatu etako bat

Gazteen bizipenak ardatz dituen serie bat aurkeztu zuen Jone Arriola elgoibartarrak Tabakalerak antolatutako 2deo lehiaketara. 99 lan aurkeztu dituzte guztira, eta epaimahaiak prototipoak garatuko dituzten hiru aukeratu ditu, tartean elgoibartarraren lana. Hasieran *Females* izenarekin aurkeztu zuen proiektuari *Larrugorritan* izena jarri dio Jone Arriolak azken fase honetan. Gazteak ardatz dituen telesaila da, eta protagonistek hogei urte inguru daukate. Bost laguneko kuadrilla batek emakumeei eta gizonen buruzko estereotipoak eta mitoak hautsiko ditu. Jone Arriolak istorio hau bere esperientziatik kontatu nahi du, bere egunerokotasunean bizi dituen egoerek gazte askori identifikatzeko aukera emango dielakoan. Jone Arriola Ikusentzunezko Komunikazio gradua egin du Euskal Herriko Unibertsitatean. 2018-2019 ikasturtean, Norvegiar burutu zuen lehen lau hilekoa Innland Norway University of Applied Sciences unibertsitatean. 2019-2020 ikasturtean, praktikak egin ditu Pausoka ekoiztetxean eta ETBn errealizazioan.



Maskulinitateari buruzko ikastaroa, urtarrilean

Elgoibarko hezitzaileentzako eta DBHko irakasleentzako ikastaroa antolatu du Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak, Hiruki Larroxarekin elkarlanean: *Maskulinitateak hezkuntza ez-formaletik irauliz*. Ikastaroa urtarrilaren 13an, 14an, 20an eta 21ean izango da, 9:30etik 12:00etara Aita Agirre kulturegunean. Plazak mugatuak dira, beraz interesatuek, abenduaren 29a baino lehen eman beharko dute izena berdintasuna@elgoibar.eus helbidera idatzita, edota 943 741 050 (luzapena: 306) telefonora deituta.

DanobatGroupen Euskararen Eguneko lehiaketak baditu irabazleak



Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia lemapean, Danobatgroup kooperatiba taldeak bi lehiaketa antolatu ditu Euskararen Eguna ospatzeko: bata langileei zuzendutakoa izan da, eta bestea, kooperatibak dituen herrietako gizarteari zabalduakoa. Gizartera zabalduakoa ekimenean parte hartzeko, euskararen inguruan hausnarketa egin behar zen eta aurten Jaione Aranguren azkoitiarra eta Irune Lopez Alegria Dulantzikoek eskuratu dituzte Errigorako saskiak.

Olentzerori buruzko erakusketa antolatu du Atxutxiamaikak

Aurten ez da Olentzero eta Mari Domingiren kalejirarik egingo, baina hala ere, ez dute hutsik egingo opariak banatzeko lanean. Atxutxiamaikak bideo bat sortu du Olentzeroren historiari buruzko informazioarekin, eta bideo hori landu dute hezitzaileek umeein Elgoibarko ikastetxeetan. Olentzeroren aldaera desberdinen berri ematen du bideoak, eta horren harira, norberak bere Olentzero sortzeko deia egin diete umeei. Ikastolan zein etxean sortu daitezke Olentzeroak. Jasotzen duten materialarekin erakusketa egingo dute Kultur Etxeko sotoan abenduaren 24tik 26ra, 11:00etatik 14:00etara.



Era berean, helbide elektronikoko bat sortu dute arduradunek, Olentzero eta Mari Domingiri gutuna bidaltzeko: olentzeroetamaridomingi@ni.eus. Jasotako mezu guztiak erantzungo dituzte. Mendaron ere bideo bat egin dute, Udalak eta Musika Eskolak, eta udaletxe azpian jarriko dute postontzia, gutunak bidaltzeko.

Errege Magoei gutuna bidaltzeko postontziak jarriko dituzte Elgoibarren eta Mendaron



Koronabirusaren eraginez debekatuta daude jende pilaketa handiak sortzen dituzten ekitaldiak, hortaz, aurten ez dute Errege Magoen desfilerik egingo ez Elgoibarren eta ezta Mendaron ere. Hala ere, Errege Magoak etorriko dira opariak banatzera, eta haiei gutuna bidaltzeko postontzi bereziak jarriko dituzte. Elgoibarren, Lekuederren, Kalegoen eta Kalebarren plazan egongo dira postontziak abenduaren 28tik urtarrilaren 6ra. Mendaron, berriz, udaletxe azpian jarriko dute postontzia. Postontzietan gain, herritarrei mezua bidaltzeko bideoak prestatu dituzte Errege Magoek, eta Eguberrietako egunetan zabalduko dituzte.

Jostailuak trukatzeko azoka egingo dute domekan Mendaron

Arno Guraso Elkartek antolatuta, jostailuak trukatzeko azoka egingo dute domekan, Azpilgoetako etxe zurien aterpean. Aurrez jostailuak batu dituzte elkarteko ki-deek, eta jostailuak eman dituzten herritarrei bono bana eman diete, azokan beraiek nahi duten jostailua jaso ahal izateko. 11:00etatik 14:00etara izango da.

Eguberrietako postalen erakusketa, Mendaron

Mendaroko Ikastolan Eguberrietako postalak egin dituzte, eta jasotako lan guztiak erakusketa antolatu du Arno Guraso Elkartek. HHko umeen postalak abenduaren 21ean jarriko dituzte ikusgai udaletxeko atarian, 17:00etatik 20:00etara. Hurrengo egunean, LH1etik LH3rako umeen lanak erakutsiko dituzte ordu berean, eta LH4tik LH6rako umeen postalak abenduaren 23an jarriko dituzte, goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara.

Eguberrietako bertso-saiorako sarrerak agortuta daude

Bertso saio literarioa antolatu du Elgoibarko Izarrak Eguberrietarako, eta elkarteko arduradunek jakinarazi dute dagoeneko agortu direla sarrerak. Herriko Antzokian izango da ikuskizuna, eta koronabirusaren eraginez, gehienez 190 lagunentzako lekua izango da. Abenduaren 9an jarri zituzten salgai sarrerak, eta biharumenean agortu ziren.

Urtarrilaren 22an izango da Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna, eta urtarrilaren 2an jarriko dituzte salgai sarrerak

Amaren intxaurrak ikuskizun berria aurkeztuko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek urtarrilaren 22an, Herriko Antzokian. Bi saio eskainiko dituzte, 17:00etan bata eta 19:00etan, bestea. Marimototsen ama Loreto hil zenetik hiru urte pasa ostean parke magikoan elkartuko dira pailazoak, eta konturatuko dira Loretoaren heriotzean landatu zuten intxaurrendoa hasi dela fruituak ematen. Intxaurrak jan ahala, Loretoekin bizitako abenturak gogoratuko dituzte, eta ikusleekin partekatuko dituzte. Urtarrilaren 2an jarriko dituzte salgai sarrerak Kutxabank bidez eta Herriko Antzokiko leihatilan, 19:15ean. Udaleko Kultura Sailetik jakinarazi dute urtariletik aurrera Kutxak kendu egingo duela Elgoibarko bulegoan duen sarrerak inprimitzeko makina. Hori dela-eta, bi aukera egongo dira aurrerantzean sarrerak egiaztatzeko: norberak etxean inprimitzea edo sarrerak sakelako telefonoan deskargatzea.



Liburu elektronikoa bana, 'Nik kontatuko dizut' lehiaketan parte hartu zutenentzat



Nik kontatuko dizut lehiaketa antolatu zuen itxialdian Mendaroko Udalak eta iragarri zuen sei liburu elektronikoa zozketatuko zituela parte hartzen zuten ume guztien artean. Lehiaketa hutsik uztea erabaki zuten parte-hartzea txikiegia izan zela-koan, eta liburu bana eman zieten parte hartu zuten hiru umeei. Ez zuten begi onez ikusi umeek. Sortu ziren desadostasunak kontuan hartuta, baina, Udalak atzera egin du bere erabakian eta e-book bana eman die parte hartu zuten hiru lagunei. Danel Garcia, Maia Soto eta Luken Zulaika dira lehiaketan parte hartu zuten hiru umeak.

Elgoibarko dantzariak Gazte mailako Aurreku Txapelketako finalean

Aimar Almortzak, Markel Goenagak, Eneko Etxanizek eta Jon Etxeberriak lortu zuten Gazte Mailako Aurreku Txapelketa Nagusiko finalerako sailkatzea, baina Etxeberriak ezin izan zuen parte hartu. Legazpin jokatu zuten zapatuan, eta Elgoibarko dantzariak maila ona erakutsi zuten: "Oso zaila izaten da txapelketa honetarako sailkatzea eta gure lau dantzari lortu zuten. Lan bikaina egin dute urte osoan eta Legazpin ere eman dute daukaten mailaren berri, emaitza onak lortuz. Pena bakarra, Jonek ezin izan zuela joan", azaldu dute.





Boleto hau ekarriz gero **10€** ko deskontua eskuratuko duzu zure erosketan.
 Erosketa bakoitzeko txartel bat.

Beste deskontuekin ez da metagarria. Baliogarria abenduaren 31 arte.



ESARRI AUTOAK ZERBITZUA
 MARKA GUZTIAK

943 741 480

Aitor: 606 975 730

Anton: 680 356 573

Faxa: 943 031 576 Olaso, 17 - Elgoibar



AHOLKULARITZA

BIKAIN

ASESORIA

Tel.: 943 744 557

Faxa: 943 740 408

e-posta: bikain@bikainasesoria.com

Gabon zoriontsuak!!

- Zerga-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontabilitate aholkularitza


Antonio Arrillaga, 4 behea
 20780 ELGOIBAR

Denon artean lortuko dugu
 Elgoibar indarberrituta irteeta

**URTE
 BERRI
 ON!**

ehbildu
 Elgoibar

Elgoibarko EH Diderekin hantzenaren jantza:



918 00 20 40



ehbildu.elgoibar.eus



@ehbilduElgoibar



[ehbilduElgoibar](https://www.facebook.com/ehbilduElgoibar)

SEGUR-arno
 ASEGURUAK
 PEDRO BASURCO - AMAIA PAGOAGA

SEGUR-arno

Gabon
 zoriontsuak!

Deba kalea 2, behea - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Tel.: 943 74 80 13 - Fax: 943 74 81 35

segurarno@segurarno.com - www.segurarno.com



Eguberri zoriontsuak eta urte berri on!

*Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.*

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA



Aita Agirre, 3, 3. solairua - 20870 ELGOIBAR

943 742 731

udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

**Zailtasunak gainditu ondoren berriz ere zuekin!
Mila esker urte guztian gure ondoan egoteagatik.**

Zorionak eta urte berri on!

Mugertza krosa bertan behera lagatzea erabaki du Mintxeta atletismo taldeak

Datorren urteko Mugertza Krosa bertan behera lagatzeko erabakia hartu du Mintxeta atletismo taldeak, hausnarketa prozesu baten ondoren. Krosaren 78. edizioa antolatu nahi zuten, baina horretarako, zenbait baldintza jarri zizkieten euren buruei, eta koronabirusaren ondorioz, bi baldintza ezin direla bete jabetu dira: batetik, ezingo lukete 20 urtez azpiko atleten parte hartzea bermatu, eta kategoria absolutuetako bi probak bakarrik antolatu ahal izango lituzkete. Horrez gain, une honetan indarrean dagoen araudiak ez du baimentzen kirol proba publikoarekin jokatu ahal izatea.

Bigarren baldintza honek pisu handia zeukan antolatzaileentzat: "Antolakuntzan parte hartzen dugunok uste dugu gure krosa herriarena dela, zaleena, eta ahalik eta ikuskizunik handiena eman behar dugula. Eta, mundu guztian ezaguna izanik, oinarrizkoa den zutabe hau izan ezean, ez du zentzurik lasterketa antolatzeak; izan ere, atletek ezin izango dituzte gozatu ikusleen txalo beroak, eta ezta Mintxetan egiten den jaia ere". Krosaren antolakuntzan laguntzeko prest azaldu zaizkie herritarrek, baina egoera honen aurrean arduraz jokatzera erabaki dute: "Azken egunotan pertsona eta erakunde asko gugandik hurbil sentitu ditugu, eta krosa antolatzera animatu gaituzte. Elgoibarko krosa desberdina da, gure herriko ekitaldirik esanguratsuen, nazio mailako egutegiko probarik zaharrena, eta atletismoaren munduan murgilduta dauden pertsona gehienentzat munduko probarik onena. Ardura oso handia genuen, gure krosa erreferentea delako, eta gure antolaketa modua eredu izateak ilusio handia egiten zigulako, baina gure inguruko osasun neurriak ez dira Elgoibarrek merezi duen moduko krosa bermatu ahal izateko bezainbeste hobetu". Eskerrak eman dizkiete erakundeei, Elgoibarko herriari, babesleei, atletei, boluntarioei, federazioei eta hedabideei eman dieten laguntza leialagatik. "2022ko urtarrilean berriz elkar ikusiko dugulakoan, gabon zoriontsuak guztioi, eta 2021erako, osasuna guztiontzat".



Juan Kruz Gabilondo futbolari ohia hil da

Juan Kruz Gabilondo 92 urte zituela zendu zen a b e n d u a r e n 10ean. Gabilondok Betis futbol taldean jokatu zuen 1953tik 1956ra, eta, urte gogor askoren



ondoren, 1954. urtean Betis taldea Espainiako Ligako Bigarren Mailara igo zuen hamaikakoan izan zen. Ahatik, gogoan dute oraindik ere eta dolumin mezua zabaldu du Sevillako taldeak. Atzelari aritu zen, eta sasoi hartan lau Mosketeroak izenez baitaiatu zuten laukoteko bat izan zen. Gonzalez atezainak eta Portu eta Cifuentes hegalekoek osatzen zuten laukote hura Gabilondorekin batera. Sevillako taldeak akorduan izan zuen Gabilondok Betis taldearen alde egindako lana, eta Betis taldeko ordezkarien bisita jaso zuen orain dela bi urte Elgoibarko bere etxean. Rafael Gordillo Betis futbol taldeko Kanpo Harremanetarako zuzendaria eta Manolo Rodriguez Real Betis Balompie Fundazioko kudeatzaileak oroigarri bat eta Betiseko kamiseta bat oparitu zizkieten Gabilondori.

Olaizaga kiroldegiko eta Mintxetako tabernak ustiatzeko lizitazioa irekita dago

Mintxeta kirol gunean eta Olaizaga kiroldegian dauden taberna zerbitzuak lizitaziora atera ditu Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Esleipen kontratuak urtarrilean eta otsailean amaitzen direla ikusita, lizitazio-prezioak berrikusi eta pandemiak eragindako egoerara egokitu dituela jakinarazi dute patronatutik, kirol federatua eta eskola kirolaren jarduerak jasaten ari diren murrizketak aintzat hartuta. Aipaturiko guztiagatik, bi instalazioetako tabernen hasierako prezioa egin jaitsi da. Mintxetako tabernaren hasierako prezioa, udako igerilekuetako taberna barne, 300 euro/hilean + BEZa izango da kontratuaren lehen urtean, 600 euro/hilean + BEZa bigarren urtean eta 900 euro/hilean + BEZa hirugarren urtean. Kontratu hau 4. eta 5. urteetan luzatu ahal izango da, hirugarrenaren prezio berean. Olaizaga Kiroldegiko tabernaren hasierako prezioa ere 300 euro/hilean + BEZa izango da kontratuaren lehen urterako, 400 euro/hilean + BEZa bigarren urterako eta 500 euro/hilean + BEZa hirugarren urterako. Kontratu 4. eta 5. urteetan luzatu ahal izango da, 3. urteko prezio berean. Interesdunek proposamenak 2021eko urtarrilaren 4a baino lehen aurkeztu beharko dituzte, Olaizaga kiroldegiko bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara. Informazio guztia www.elgoibar.eus webgunean.

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 612 493 913

Baserriko lanak egiteko prest nago. Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko ere bai.

☎ 631 820 135

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 632 238 016

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Gavez ere bai. Eusko Jaurlaritzaren mendeko pertsonen zaintzako titulua daukat.

☎ 666 197 831

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Berehala hasteko moduan. ☎ 602 850 826

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 685 405 820

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Euskalduna naiz.

☎ 637 102 725

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 631 165 471

Adinekoak zainduko nituzke. Euskalduna naiz.

☎ 617 571 210

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Papelak legezt ditut.

☎ 643 601 205

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan zein orduka.

☎ 602 169 509

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz.

☎ 660 511 781 / 943 742 330 (Elena)

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.

☎ 642 975 934

Baserriko lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat eta ordutegi malgua.

☎ 623 162 196

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat.

☎ 685 405 820

IBILGAILUAK.....

Autokarabana integrala salgai. 7 metrokoa, egoera onean, ekipatua. Urtean zehar garrasatzen gordeta egon dena.

☎ 656 724 782 / 638 604 999

BESTELAKOAK.....

Helduentzako taka-taka salgai. Gutxi erabilia, egoera onean. 100 euro.

☎ 660 511 781 (Elena)



Antonia Carrero Romero

2020ko azaroaren 11n hil zen, 75 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Eskola Administratzaileak
Lanaldia Kontabilak



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administratzaile-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Jakin nahi nuke etxejabe batek esaten badu ez diotela bazar baterako deialdirik bidali, nola egiaztatzea daitekeen benera bilerara deitua izan dela.

Zitaziorik ezaren alegazioa egitate negatiboa da, eta esanahi bereko egitate positiboa baten bidez frogatu daiteke. Deialdia egin dela frogatzeko moduari dagokionez, legeak ez du ezartzen komunikazioa modu fede-emailean egin behar denik. Baina ezker ez du eragozten komunitateak horretara jotzea, deialdia jaso ez duten jabeak dauden komunitateetan. Hala ere, notario-bidea edo burofaxa bidaltzea oso garestiak dira komunitate gehienentzat. Eta praktikan, beste metodo batzuk erabil daitezke, fede-emaileak izan gabe, baldin eta deialdia entregatu izanaren frogatu bat aurreikustea ahalbidetzen bada. Kasurik ohikoena posta arruntez bidaltzea da. Jabeak alegatu dezake ez duela inolako komunikaziorik jaso postaz, baina, frogatu hori erabat egiaztatzea ezinezkoa denez, auzitegiek presuntzioetara jo ohi dute, hala nola gainerako jabeekideek jaso izana, erkidegoan erabiltzen den ohiko sistema izatea jabeen kexarik gabe, edo jabeak aldizka jasotzea komunitatearen komunikazioak inolako kexarik gabe.

Ondorioa: irtenbide bera aplikatuko da jabeak ukatzen badu akta, komunitateko kontabilitate-balantzea edo beste edozein komunikazio ez jaso izana.




AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak urtarilaren 5ean, eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENe**ko** bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Nahia**, abenduaren 13an 8 urte bete zenituelako. Izugarri gozatu genuen denok. Muxuak etxekoen, eta bereziki, Hodeiren partez.



Astelehenean 4 urte handi, **Unai!** Ondo ondo pasa zure egunean! Zorionak etxekoen, eta bereziki, Manexen eta Xabaten partez.



Zorionak, **Marko**, abenduaren 15ean 4 urtetxo bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoen, eta, bereziki, Paulen partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak gure sorgin politari! Primeran pasatu genuen eguna! Muxu handi bat etxeko guztion partez. Aupa **June!**



Zorionak, **Uhaitz** eta **Izei** abenduaren 13an 2 urtetxo egin zenituztelako. Izebaren partez, muxu handi bana.



Zorionak, **Beñat** eta **Nere**, Gabonetan 8 eta 6 urte beteko dituzuelako! Zelako handi zaudeten jada! Primeran ospatuko dugu!



Zorionak, **Ihinzta!** Bi urte konturatu ordurako! Muxu handi bat, etxekoen partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

BARREN sare sozialetan

facebook.com/barrenaldizkaria twitter.com/barreneus instagram.com/barrenaldizkaria

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

Osasun gida Osasun gida Osasun gida

aldaz hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toriblo Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 15
943 740 191 / 667 951 028
www.fisio-mas.com

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
fuzizari@yahoo.com
615 715 404

leku eder
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

irten eta begiratu!

etxeGain
BIZIGUNEA

Bigarren portaleko lanak hasterako etxebizitzaren %45 erretserbatuta daude.

Sukalde guztiz hornituak eta armairu sartuak.



Ez galdu Elgoibarren bizitzeko aukera. Ez galdu kalitate goreneko materialarekin eraikitako eta pertsonalizatzeko aukera asko eskaintzen dituen **etxebizitza berria** bizitzeko aukera.



4. SOLAIRUA
2 LOGELA - 2 BAINU
SUKALDE HORNITUA,
TERRAZA
140.000 euroan hasita

WWW.ETXEGAIN.COM



grupo eibar
inmobiliario

689 66 08 01

E.: comercial@grupoeibar.com
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar
E.: comercial@grupoeibar.com 943 31 66 11

AZKENEKO BI ETXEBIZITZA,
BEHEKO SOLAIRUAN.
TXOKOAREKIN ETA
GARAJERA SARBIDE
ZUZENAREKIN.
195.000 euroan hasita



OBRA FINANZIADA POR
bankoa | Groupe
Credi Agricole



Lanbroa

Pedro Muguruza, 5
Tel.: 943 743 811 / 943 740 806

*Mila esker garai zail hauetan gudan jarritako konfidantzagatik.
Gabon zoriontsuak herritar guztioi!*

BERRIA!
eskatu eta
eramateko zerbitzua!

ibai-ondo erretegia

943 256 028



Urte berri on

2021
zoriontsua!




Zuentzat eta zuekin
eguneroko jardunean
etorkizuna eraiten



1962tik gelak bizipenez betetzen

IRATI DE NOVA VILA

MAQUINAS ESPECIALES



Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L
Tel.: 943 744 466 · Faxa: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net

MAKINA BEREZIAK



Edurne Gabilondo Loyola

Zuzenbidean litzentziatua
Higiezin sektoreko peritu ofiziala

www.inmobiliariagabilondo.es

San Frantzisko 51, behea - Elgoibar

943 74 44 67

Gabon zoriontsuak!

18 BARIKUA

18:00 Odol ateratzeak. Jubilatuen Bil-tokian. 50 odol emaille behar dituzte. Txanda hartzeko 623 328 408 telefonora deitu edo whatsapp mezua bidali behar da.

18:00 Zine foruma: 'Tully'. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

18:30 Gemma Monrealen erakusketa. Abenduaren 30era arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19 ZAPATUA

17:30 'Olentzeroren zaku magikoa' ikuskizuna, Mendaron, ikastolako patioan.

20 DOMEKA

11:00 Jostailuen azoka. Arno Guraso elkarteak antolatuta, Mendaron, Azpilgoetan. Jostailu trukea egingo da.

21 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako Jabekuntza Tailerra: 'Errua ez da gurea'. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Doan, irekia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

17:00-20:00 HHko haurrek egin dituzten Gabonetako postalen erakusketa Mendaron. Arno Guraso Elkarteak antolatuta.

22 MARTITZENA

18:00 Jaiotzen erakusketa. Jaiotza lehiaketan parte hartu duten lanak jarririko dituzte ikusgai Aita Agirre kultur-gunean. Hilaren 22an, 23an eta 26tik 30era egongo da ikusgai.

17:00-20:00 LH1etik LH3ra arteko umeen Gabonetako postalen erakusketa Mendaron. Arno Guraso Elkarteak antolatuta.

23 EGUAZTENA

11:00-13:00 / 17:00-19:00 LH4tik LH6ra arteko haurren Gabonetako postalen erakusketa Mendaron. Arno Guraso Elkarteak antolatuta.

27 DOMEKA

19:00 Joseba Irazoki, bakarka. Kontzertua Mendaroko San Agustin kultur-gunean. Gararock taldeak antolatuta Udalaren babesarekin.

28 ASTELEHENA

16:30 'Ganbarako ipuinak'. 3 urtetik gorakoentzat. Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak antolatuta. Sarrerak agortuta.

29 MARTITZENA

16:30 'Trakamatraka'. Herri Eskolan. Umeentzako ikuskizuna. Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak antolatuta. Sarrerak agortuta.

19:00 Bertso-saio literarioa. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Herriko Antzokian. Sarrerak agortuta daude.

30 EGUAZTENA

19:00 'Kutxa baten istorioak'. Herriko Antzokian. Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak antolatuta.

2 ZAPATUA

19:15 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen saioetarako sarrerak jarriko dituzte salgai. Herriko Antzokian eta Internetez Kutxabanken bitartez.

4 EGUAZTENA

16:30 Ikuskizun familiarra: 'Organic'. Herriko Antzokian. Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak antolatuta.

8 BARIKUA

16:30 Ikuskizun familiarra: 'Aioko'. Herriko Antzokian. Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak antolatuta.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

| 18 BARIXAKUA | 19 ZAPATUA | 20 DOMEKA | 21 ASTELEHENA | 22 MARTITZENA | 23 EGUAZTENA | 24 EGUENA | 25 BARIXAKUA | 26 ZAPATUA | 27 DOMEKA | 28 ASTELEHENA |
|----------------------|----------------------------|----------------------------|----------------------|----------------------------|--------------------------|----------------------|-------------------------|----------------------------------|--------------------------|----------------------------|
| Egunez *Ibañez | Egunez Garitaonandia | Egunez Garitaonandia | Egunez Arriola | Egunez *Fernandez | Egunez Yudego | Egunez Arriola | Egunez Arriola | Egunez *Ibañez Barrenetxea | Egunez *Ibañez | Egunez Garitaonandia |
| Iluntzean Yudego | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Arriola | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Yudego | Iluntzean Arriola | Iluntzean Arriola | Iluntzean --- | Iluntzean --- | Iluntzean Garitaonandia |
| 29 MARTITZENA | 30 EGUAZTENA | 31 EGUENA | 1 BARIXAKUA | 2 ZAPATUA | 3 DOMEKA | 4 ASTELEHENA | 5 MARTITZENA | 6 EGUAZTENA | 7 EGUENA | 8 BARIXAKUA |
| Egunez Arriola | Egunez *Fernandez | Egunez Yudego | Egunez Yudego | Egunez Barrenetxea | Egunez Barrenetxea | Egunez *Ibañez | Egunez Garitaonandia | Egunez *Fernandez | Egunez *Fernandez | Egunez Yudego |
| Iluntzean Arriola | Iluntzean Arriola | Iluntzean Yudego | Iluntzean Yudego | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Yudego | Iluntzean Yudego | Iluntzean --- | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Yudego |

* Fernandez:

Herriko Enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:

Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:

Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384

Abenduan, gauzez: 22:00-09:00

Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar) - 943 206 984

Urtariletik aurrera, urte guztian, gauzez: 22:00-09:00

Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar) - 943 201 912

Zinea (Herriko Antzokian)

'Erlauntza'

18 barixakua: 19:00 (Euskaraz, azpigituluekin)
19 zapatua: 19:00 (Euskaraz, azpigitulurik gabe)
20 domeka: 19:00 (Euskaraz, azpigituluekin)
21 astelehena: 19:00 (Euskaraz, azpigituluekin)

'Trolls2: Gira mundial'

20 domeka: 16:30

'La última navidad'

25 barikua: 19:00
26 zapatua: 19:00
27 domeka: 19:00
28 astelehena: 19:00

'El jinete dragón'

27 domeka: 16:30

'La primera navidad'

1 barikua: 19:00

'Nieva en Benidorm'

2 zapatua: 19:00
3 domeka: 19:00
4 astelehena: 19:00
6 eguaztena: 19:00

'Los Fixies contra los Crabots'

3 domeka: 16:30



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



***GABON ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON!***

943 36 63 77

Lasarte-Elgoibar-Tolosa

► Gremioen gida

ARROZTEGIAK

Biena S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

IMAR
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



Aroztegia · Carpintería
ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Umuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
itende@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ongi Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltsaritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

► Igeltsaritza

► Pintura

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Umuzuno, 14 beheak
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

► Leihoak

► Iturgintza

► Elektrizitatea

► Aroztegiak

► Erreformak

1.800 €

BANATUKO DITUGU 10 EROSKETA TXEKETAN



*Erosi Elgoibarren eta
musukoarentzako kaxa opari!*



Ikusi bideoa!

Gabon zoriontsuak

